

DATORRENA

Bake bidea oztopatu duen izotz-horma
urtu dadin **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

NEKAZARIEN GARAIPENA: NBEk

baserritarren eta landa eremuko
langileen eskubideak aitortu ditu **> 12**

2019ko urtarrilaren 12a | XIII. urtea • 603. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LEHENGO LEPOTIK BURUA

HIRU URTE BEHAR IZAN DITU NBEk MIGRAZIORAKO MUNDUKO ITUNA IXTEKO.
LOTESLEA IZANGO EZ DEN ITUNA, ESKUIN MUTURRAK BALDINTZATUA. HESIAK
GAINDITU NAHIAN JARRAITUKO DUTE PERTSONEK, NAZIOARTEAK BESTE ALDERA
BEGIRA JARRAITZEN DUEN BITARTEAN. **> 4** Pedro PARDO | AFP

**Migraziorako Munduko Ituna,
hiru urteko jarduna eskuin
muturrak «trolleatua» izateko** 04

**Elkarrizketa: Roger Solis, kazetari
nikaraguarra** 07

**Baserritarren eta landa eremuko
langileen eskubideak aitortu ditu
Nazio Batuen Erakundeak** 12

**Plastikorik gabe bizitzeko
proposamena Bilbon dago eta
sarean dauka erakustokia** 17

**Elkarrizketa: Esti Linares, Deustuko
Unibertsitateko ikerlaria** 22

Sarean 26

In fraganti: Txerra Bolinaga 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 Maite Ubiria Beamount:

Bake bidea oztopatu duen
izotz-horma urtu dadin

10 Ander Gortazar Balerdi: Azala

11 Mikel Zubimendi: Oposizioa
egin bainoago, erresistentzia
praktikatu

16 Amaia Ballesteros

20 Gorka Zozia: Ez etsi, beroari
etsi

21 Iker Barandiaran: iSHOT!u

25 Maider Iantzi Goienetxe:

Hau da nire odola

25 Xabier Mikel Errekondo: Egin
apustu!

30 Garazi Goia: Urtea birziklatzen



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Bake bidea oztopatu duen izotz-horma urtu dadin

Parisko karriketan 10.000 euskaldunetik gora elkartu ziren 2017ko abenduaren 9an. Neguko hotzaldiari aurre eginez, bake bidean urratsak egiteko garaia zela aldarrikatu zuten, bakoitzak bere banderola eramanez, Ipar Euskal Herriko gehiengo politikoaren ordezkariak zein euskal preso politikoen senideek. Batzuek harturiko engaiamendu politikoa zein besteek urte luzez pilatutako sufrimendua irudikatu ziren frantziar hiriburuan. Hilabete batzuk lehenago soilik, elkarrizketarako gunea osatu zuten euskal delegazioak eta gobernura heldu berria zen Errepublika Martxan alderdiko Justizia Ministerioiko ordezkariak.

Euskal presoei ezarritako salbuespen politikari buruzko elkarrizketak abiatu berri zirelarik, beraz, euskal delegazioak karrikara jotzeko hautua onetsi zuen. Bere erabakiak eztabaida bat baino gehiago piztu zuen. Parisko karriketan harrabots egiteak ez ote lituzke bazterrak sobera nahastuko Vendôme plazako egoitzan? Parisek euskal ordezkariarekin zituena harremanak ofizialki aitortu ondoren bazuen logikarik presoen eskubideen aldeko dinamikak tamainako jauzia egitea kalea hartuz?

Galdera horiek guztiak mihi puntan dantzan zebiltzala, Hego Euskal Herriko gobernu eremuetatik itxurazko diskurtso neutralak heldu ziren eskema orokorra kolokan emateko asmoz. ETA-ren armagabetzearen auzian zein presoen aferan bi hankako formulazioa sarri baliatu dute geroztik –baita aitzinetik ere– “bakegintza ofizialaren” bozeramaileek. Alde batetik, Iparraldeko hautetsien ekimen politikoak boluntarismoaren eremuan kokatuz, horien balioa gutxiestera jokatu dute, hainbatetan arinkeriaz, beste batzuetan, baldarki, ozta-ozta historiaren zentzua galtzeraino. Bestetik, paternalismo bertikala praktikatzuz, mobilizatzeko eskubidea zilegitzat jo ondoren, indar sozialaren eragina apaltzera jo dute. Alta, memoria zigor gisa baliatu beharrean, urte berriaren hasieran gaudela

aitzakia hartuta, zabal dezagun luzez hondeaturiko lubakiak lur onduz betetzeko agiantza.

Parisko mobilizazioak aparteko arrastoa utzi zuen, bide batez bakearen mapan aztarna sakona utzi zuen 2018ko urteari atea zabalduz. Aipaturiko martxa egin eta bi hilabetera Parisek lehen bi euskal presoak gerturatu zituen Mont-de-Marsanera. Orduz geroztik, orotara 25 preso heldu dira Landetako kartzelara edota Lanne-mezanera. Gaur-gaurkoz kolektiboaren erdia baino gehiago dago etxetik gertuago. Bestalde, 22 laguni bereziko zainduriko presoen DPS estatusa kendu diete.

Aldaketa tamainakoa izan da –tira, inoiz ez da horrelakorik gertatu–, nahiz eta Baionan 2014an sinaturiko deklarazioa GPS gisa duen euskal delegazioak ez duen inondik inora bere lana amaitutzat eman. Alde ilunak badira: gizonentzako asmatutako espetxe sistema oztopo berria bilakatu da egun hiru espetxetan –Reau, Rennes eta Roanne– urrunduta dituzten hamar euskal

Parisko elkarrizketa guneak espetxe politikan joera aldaketa abian jarri zuen. Horregatik du herri bulkadak berebiziko garrantzia «impasse» egoera gainditzeko

herritarrentzat. Oraingoz, “arazo teknikoak” aldarrikatuz –emazteentzako moduluen eskasia–, Parisek erantzunik gabe utzi du afera. Era berean, hurbilketen prozesuari galga ezarri ostean, hiru preso urrun –Arles, Île-de-Re eta Moulinsen dituzte– eta bakarrik gelditu dira, horrek dakarren arriskuarekin, Garikoitz Aspiazuren senideen pairaturiko auto istripuak agerian utzi berri duenez.

Parisen euskal agendari ezarritako izotz-horma urtze-ko, horrela bake ibaiaren ur-emaria handiagotuz, gizar-tearen hats beroa ezinbesteko osagaia da. Atzo bezala Parisen, gaur Baiona-Bilbon, eta, nola ez, baita bihartik aurrera ere. •

SAREAK HESI

Hiru urteko jarduna eskuin muturrak sarean «trolleatua» izaten amaitzeko

Hiru urteko jarduna eskuin muturrak sare sozialetan «trolleatua» izaten amaitzeko. Hala laburbildu daiteke Nazio Batuen Erakundearen Migraziorako Munduko Itunaren ibilbidea, 2015an abiatua eta iragan abenduan itxia. Guztira, mundu osoko 150 herrialde baino gehiagok sostengatu dute akordioa, immigrazioaren krisiari soluzioa eman asmo dion paktua.

Herrialde izenpetzaileak baino, akordioaren aurka bozkatu dutenak edota abstenitu egin direnak dira albiste –Hungaria, Polonia, Ameriketako Estatu Batuak, Txekiar Errepublika eta Israel aurka eta Aljeria, Australia, Austria, Bulgaria, Txile, Italia, Letonia, Libia, Liechtenstein, Errumania, Singapur eta Suitza abstenitu–. Izan ere, adierazgarria da atzera bota diren herrialdeetan eskuin muturrak, sare sozialen bidez, gobernuon erabakian izan duen eragina.

Itun ez-loteslea da iragan abenduaren 18an mundu osoko agintariek Marrakexen sinatua, eta balizko immigrazio krisi baten aurrean herrialdeek jarraitu beharreko jarraibideak jasotzen ditu. Besteak beste, ardura kentzen die da-goeneko etorkin kopuru handia duten herrialdeei eta iritsi berrien integrazioarako argibideak eman baino integrazioa immigranteen euren esku uzten du. Era berean, dokumentuak dio ezin diola soilik herrialde batek aurre egin

 **JENDARTEA** / Aimar Etxeberría Korta

2015eko migrazio krisiaren ondorioetako bat da iragan abenduan nazioarteko agintariek Marokoko Marrakex hirian sinatu zuten Migraziorako Munduko Ituna. 150 herrialde baino gehiagok egin zuten bat itunarekin, baina hogeiren batek ez sinatzea erabaki zuten, besteak beste, eskuin muturrak sarean eragindako presioen ondorioz.

immigrazio krisi bati –behin Greziarekin gertatu eta ondoren Italian errepikatu zen bezala–. Ituna loteslea ez denez, nazioarteko legeriaren baitan estatuek dituzten betebeharreri heltzen dira honen sustatzaileak herrialdeen inplikazioa bermatzeko formula posible bakar gisa.

ATZERA EGIN DUTENAK

Kuriosoa da akordioak izan duen ibilbidea, sostenguei dagokienez bederen. Izan ere,

2018ko uztailean, Nazio Batuen Erakundea osatzen duten 193 herrialdeek ordura arte adostutako oinarriak adostu zituzten –Ameriketako Estatu Batuek salbu–. Orduz geroztik, baina, eta anabasa artean, dozena bat baino gehiago izan dira atzera egin duten estatuak. Horrez gain, izan da herrialderik non gobernu-krisia piztu duen aferak, Belgikan kasu; Bruselako koalizio gobernuaren amaiera ezarri zuten itunaren izenpetzeak.


Hungaria izan zen akordioaren ontzitik jaisten lehena –estatubatuaren atzetik betiere–. Immigrazioaren aurkako jarrera argia du Viktor Orban lehen ministroak eta uztailean bertan, oraino itunaren xehetasunak negoziatzen ari zirela, egin zuten atzera. Orbanen ezezkoak, baina, ez zuen izan halako oihartzunik, ez zuen eragin domino efekturik. Itunaren aurkako benetako olatua Austriak eragin zuten urri amaieran, herrialdeko agintari

nagusi Sebastian Kurzek akordioa ez sostengatzea erabaki zuela iragarri zuenean. Segidan, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Polonia eta Suitza izan ziren Vienaren mandatuari jarraitu zioten herrialdeak.

Belgikaren muturreko agertokira iritsi gabe, gaiak izan zuen oihartzunik Herbehereetako zein Alemaniako agenda politikoetan ere. Geert Wilders lider ultraeskuindarra urak nahasi nahian aritu zen ondoren arrantzan egiteko asmoz, eta Alemanian CDUren baitan Angela Merkel onorengoa hautatzeko kanpainara iritsi zen afera. Hiru hautagai ziren lehian eta horietatik bi Migrazioaren Munduko Itunaren aurka zeuden: Jens Spahn eta Friedrich Merz. Zorionez, lehian hirugarrena nagusitu zen garaile: Annegret Kramp-Karrenbauer.

DESINFORMAZIOA SAREAN

Azkenaldian argi geratzen ari denez, immigrazioaren aferari etekina ateratzen jarraitzen du eskuin muturrak han eta hemen. Hainbat dira afera lehia politikoko lehen lerrora eraman duten alderdi ultraeskuindarrak, sare sozialetan eragina duten jarraitzaileek bultzaturik. Horrela erakutsi du behinik behin Elkarrizketa Estrategikorako Institutuak –Institute for Strategic Dialogue (ISD)– berriki argitaratu duen txostenak. Izan ere, honen arabera, eskuin muturreko aktibistek sare sozialen bidez garatutako kanpaina koordinatu batek eragin du Migraziorako Munduko Itunarekiko hainbat gobernu erakutsi duten jarrera aldaketa.



Aipatu erakundeak garatuta-ko ikerketaren arabera, iragan irailean hasi ziren aktibista ultraeskuindarrak sare sozialak baliatzen itunaren aurka egiteko, ordura arte gaiak apenas oihartzunik izan ez zuenean. Txio, bideo eta *online* eskaera jasa horrek ordura arte ez-gatazkatsua zitzaien afera bat beste ikuspuntu batetik hartzeraz behartu zituen hainbat agintari, hainbaten iritzi aldaketa bultzatzeraino –edota Belgikan kasu, gobernu baten erorketa eragiteraino–. Austrian eta Italian, esaterako, honakoa ondorioztatu dute ISD institutuko ikertzaileek: itunaren aurkako *online* aktibitate handia eman zen gobernuen euren iritzia eman bezperatan.

Eskuin muturraren online jarduera monitorizatzen du ISD institutuak. Tuitak, Facebookeko postak eta Youtubeko bideoak ikertzen dituzte, agenda politikoa testuinguruan jartzeko. Hala, eta Migrazioaren Munduko Itunean kasu, eskuin muturreko agenteek «neurritz kanpoko» papeira izan dutela ondorioztatu dute, «eztabaida politikoan eraginez akordioa itxi bezperatan». «Apenas hitz egin zen sare sozialetan itunaren inguruan irail erdira arte, baina orduan eskuin muturreko aktibistek aferaren berri izan eta eskala handian hasi ziren gaiaren inguruko informazio oker eta distortsionatua hedatzen», dio txostenak.

Ordutik aurrera, eskuin muturrarentzat erreferentzia diren plataformetara hedatu zen itunaren gaineko eztabaida, tartean Epoch Times webgunera, Journalistenwatch webgune ultra zuzentzen duen Thomas Böhmen zutabeetara edota Philosophia Perennis islamismoaren aurkako blogera,

Ameriketako Estatu Batuak, Hungaria eta Austria izan ziren ituna sinatuko ez zutela adierazi zuten lehen herrialdeak. Vienaren ezezekoak domino efektua eragin zuen

ISD institutuaren ikerketa batek ondorioztatu du eskuin muturreko aktibistek sare sozialen bidez garatutako kanpaina batek itunarekiko hainbat gobernuen jarrera aldarazi duela

esaterako. Milioi bat txio iker-tu zituen ISDk urriaren 31ren ostean, eta aurrez aipatu plataforma guztiak ageri dira ikertutako kontuen Top10ean.

Youtuberaren eraginean egiten du, ordea, azpimarra ISD institutuaren ikerketak. «Bereziki da garrantzitsua sare sozial hau eskuin muturraren baitan informazio distortsio-

natu edo faltsua hedatzeko orduan», dio ikerketak, nabarmenduz eskuin muturreko aktibistak edo mugimendu konspiratzaileak zirela gaiaren inguruan Youtuben ziren bideoen hiru laurdenen egileak.

AKTIBISTA AUSTRIARRAREN ADIBIDEA

Eskuin muturreko aktibisten joaren eta eraginaren erakus-

Iragan abenduan sinatu zuten, Marrakexen, nazioarteko agintariek hiru urteko lanaren emaitza den Migrazioaren Munduko Ituna.

Fadel SENNA | AFP

garri da ISDko ikertzaileen ondorengo aurkikuntza: hilabetez, Martin Sellner delako aktibista ultraeskuindar batek abiatutako itunaren aurkako *online* sinadura bilketa izan zen Alemaniako sare soziale-tan gehien zabaldutako lotura. BBC britainiarraren arabera, «Europako eskuin muturraren aurpegi berria da Sellner».

Heinz-Christian Strache Austriako kantzilerorde eta Askatasunaren Alderdi ultra-ko buruaren hitz batzuk izan ziren Sellneren inizatibaren oinarri. Migrazioaren Munduko Itunaren aurkako bere ikuspuntua egin zuen publiko Strachek iragan irailean, eta orduan heldu zion gaiari Sellnerrek. Bideo bat egin zuen aktibista austriarrak, «informazioaren gerraren» hasiera



Austrian eta Italian, esaterako, ikusi dute itunaren aurkako aktibitate handia eman zela sare sozialetan gobernuek euren erabakiaren berri eman bezperatan

deklaratuz. Sua zabaltzeko deia egin zien aipatu bideoan kamaradei, izan ere, eta haren ustetan, «heriotza» eskaintzen zien paktuak Europako herritarrei, «elite globalek etorkizunarekiko duten bisioa agerian utziz». Bideoa Alemanian barra-barra zabaltzeaz gain, migrazioaren inguruko itunaren hari-
ra Youtuben publikatutako bideoen artean ikusiena izatera iritsi zen.

Aurrez azaldu bezala, urriaren amaieran adierazi zuen Kurzen Gobernuak –Askatasunaren Alderdi ultrarekin koalizioan dago agintean– Austriak ez zuela Migraziorako Munduko Itunarekin bat egingo, inguruko herrialdeak bide berbera hartzera gonbidatuz. «Kontua hau da: guk abiatu genuen kanpainarik gabe ez zen aferaz eztabaida publikorik emango», adierazi dio Sellnerek Politico webguneari. Kanpainaren helburua, beraz,

Itunaren zirriborroa idaztearen arduraduna atsekabetuta agertu zen nazioarteko agintariak Marrakexen egin zuten goi bileran. Sareetan zabaldutako «fake news»-ak gogor salatu zituen

aski ongi gauzatua izan da, Kurzen mugimenduaren ostean, herrialdez herrialde hedatu zen eztabaida, esaterako: Herbehereetan, Belgikan, Polonian eta Txekiar Errepublikan. Herrialde horietan guztietan erakutsi du eskuin muturrak eragina duela, ISD institutuak egindako ikerketaren arabera.

ATSEKABEA NAZIO BATUETAN

«Donald Trumpek berehala egin zuen atzera, akordioa bera eztabaidatzera ere sartu gabe, baina European ez zion inork jarraitu. Viktor Orbanek ere bide berbera hartu zuen, baina honek ere ez zuen eragin nabarmenik izan inguruko

estatuengan», adierazi zuen Bart De Weber Flandesko Aliantza Berriko (N-VA) liderrak –ituna sinatzearen ondorioz Belgikako Gobernua utzi zuen alderdiko buruak hain zuzen ere– nazioarteko agintariak iragan abenduan Marrakexen egin zuten goi bilera batean. «Soil-soilik Austriak hitz egitean, lehenengo herrialde ‘normal’ bezala, piztu ziren gure alarmak», gaineratu zuen VRT katean egun batzuk geroago.

Italiako kasuan, non Lega ultraeskuindarra Gobernuan dagoen, austriarren urratsak jarraitu zituzten iragan azaroan ituna ez zutela sinatuko erabakiz. ISDren ikerketaren arabera, Matteo Salvini Legako liderraren, Luigi Di Maio Bost Izarren Mugimenduko buruaren eta Guiseppe Conte herrialdeko lehen ministroaren Twitter kontuak nazioarte mailan ISDk ikertutako milioi bat tuiten artean hamar


aipatutakoenen artean zeuden.

Atsekabetuta agertu zen Louise Arbour Migrazioen Munduko Itunaren proposamena egitearen arduraduna Nazio Batuen Erakundeak Marrakexen egin zuen konferentzian. Bertan, itunaren sinaduraren aurreko hilabete eta asteen errepasoa egin zuen: «Harrigarria da zenbat desinformazio egon den itunak jasotzen eta esaten duenaren inguruan». Sare sozialetan zabaldutako *fake news*-ak arbuiaitu zituen, itunak «immigrazio eskubidea» aitortzen zuela edota legeria nazionaletan zuzeneko eragina izango zuela esaten zutenak batez ere. Eskuin muturreko *troll*, *influencer* eta blogariak aurkako alegatua izan zen berea, atsekabe osoz horiek hilabeteetako kanpaina batekin *mainstream*-ean kokatzen diren alderdi nagusien posizioak aldatu ditzutela onartzetik egina.

Itunaren trolleatzea sare sozialetan

Migrazio itunari buruz Youtuben gehien ikusitako 100 bideoen jatorria*


(100 bideo ospetsuenen sortzaileak)



* 2018ko abenduan Institute of Strategic Dialogue-k bildutako datuak.

Twitterreko txio kopuruaren bilakaera gaiaren inguruan

(Milaka txio)



«Mugimendu sandinista benetakoa da, bestea asmakizun hutsa izan da»

Roger Solis kazetari nikaraguarra da, Radio Segovia irratiko zuzendaria. Euskal Herrira egindako bisitan, GAUR8rekin mintzatu da Nikaraguako egoeraz. Azkenengo hilabeteetan herrialdean egon diren protestak, Daniel Ortega presidentearen kudeaketa, giza eskubideen urraketak salatu dituzten ahotsak eta testuinguru horretan komunikabideek duten erantzukizuna hizpide izan ditu. Bere hitzetan, iazko apirilaren 18an hasi ziren manifestazioak eta bereziki abuztura arte bizitako biolentzia estatu kolpe saiakera bat izan ziren.

Kazetaria zaren heinean, zernolako analisia egiten duzu egungo egoeraz?

Nikaraguan estatu kolpe saiakera bat egon da. Hildako asko egon dira, gure ekonomia kaltetu eta boterea biolentzia erabiliz bereganatu nahi izan dute, horregatik diot, segurtasun osoz, estatu kolpe saiakera bat pairatu dugula. Mugimendu eta erakunde biolento horien iritziz, herriak ez du Daniel Ortegak gobernuan jarraitzea nahi eta kargua utz dezala exijitzen diote. Iazko apirilean, maiatzean eta ekainean sufritu genuen biolentzia maila ezohikoa izan zen. Sekula ikusi gabekoa. Fronte Sandinistak eta herriak berak biolentzia giroa murriztea lortu zuten. Protestak eta manifestazioak eragindako kalte materialak Mitch urakanak eragin zituenak baino hiru aldiz altuagoak izan zirela salatu zuen Ekono-

ROGER SOLIS

NIKARAGUAKO KAZETARIA

Radio Segovia irratigintzaren erreferente da Ocotalen. Nikaraguako egoeraz eta iaz egondako protestei buruz mintzatu da GAUR8 bertako zuzendari Roger Solisekin.

Ainara Lertxundi



mia ministroak. Errealitatearen manipulazioa izugarria izan da. Gezur itzelak bota dituzte. Sare sozialak, telebista kateak eta nazio mailan dituzten bi egunkariak erabili zituzten horretarako. Gazteak engainatu eta manipulatu zituzten alde zaurietatik eta denborarekin prestatuta zuten estrategia bat erabilita. Abuztuaz geroztik, egoera lasaitzen joan den arren, oraindik ere polarizazio politikoa nabarrena da.

Ez dago hildakoen zifra zehatzik, baina Nikaraguako Giza Eskubideen Aldeko Elkartek (APNDH) apirilaren 18tik irailaren 2ra artean 481 hildako eta 3.962 zauritu egon zirela salatu du. Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Mandataria hildakoak 300 baino gehiago izan zirela salatu du. Nola baloratzen dituzu zifra horiek?

Legebiltzarrean sortu zen Egiaren Batzordeak eta Poliziak hildakoak 200 izan zirela adierazi zuten. Egia da beste iturri batzuek hildakoak 400 izan zirela diotela, baita 500 ere. Zifra hain ezberdinak izatea ez da kasualitatea, ordea. Manipulazio estrategia horren baitan kokatzen da. Biolentziaren ondorioz hil zirenak 200 bat dira; tartean 23 polizia eta Fronte Sandinistako kideak daude. Hil zuten lehenengoa Poliziaren kapitain bat izan zen. Lehenengo hildakoak ez ziren ikasleak ziren. Biktima errugabeak egon ziren. Kaletik zihoazela, barrikada edo *tranque* batekin topo egin, eta, sandinista izatea leporatuta, bahitu eta torturatu zituzten asko. Eta akaso lanetik etxera zihoan langile soil bat zen. Heriotza horiek guztiek min han-

dia egiten digute nikaraguarroi. *Tranque* horiek atxiloteta guneak ziren. Hori esan beharra dago. Jendea atxilotzeko eta torturatzeko erabili zituzten, are gehiago sandinistak zirela egiaztatzen bazuten. Egiaren Batzordea heriotza horiek nola gertatu ziren ere ikertzen ari da. Bai senideek baita gobernuaren aldekoak garenok ere jakin nahi dugu nola gertatu ziren heriotza horiek. Horietako batzuk Poliziarri leporatzen dizkiote gertatu ziren lekuan eta momentuan polizia ez zegoen arren. Estatu kolpea antolatu zutenei hildakoak egotea interesatzen zitzairen; hori bilatzen zuten, nahasmena sorrarazteko.

[Urte bukaerako mezuan, Egiaren Batzordeak manifestatzaileen biolentzia gaitzetsi zuen eta Gobernuarekiko haserre adierazteko bide ez bortitzak daudela adierazi zuen. «Gertatutakoa ekidin zitekeen. Zoritxarrez, biolentzia erabili zuten, gorroto sentimendua astinduz. Barrikadak beldurra eragiteko azpiegiturak izan ziren. Protesta horietan atxilotuak izan zirenen egoera ikuskatu dugu eta zintzotasun osoz esan dezakegu, beraien senideen lasaitasunerako, ez dutela torturarik edo tratatu txarrik jasan. Haien ahotsetan entzun dugu Poliziak ez dituela torturatu, ezta espetxeetako zaintzaileek ere. Egiaren Batzordeak giza eskubideen aldeko elkarrekin, bai Nikaragua bertakoei bai nazioarteko erakundeei ere, biltzeko proposamena luzatu die, elkarrekin atxilotuen egoera eta hildakoen zerrenda aztertzeko eta baloratzeko. Baina, oraindik ere ez dugu inolako erantzunik jasotako», nabarmendu zuen bere mezuan Egiaren Batzordeak].

Nork sustatu du estatu kolpe saiakera zure ustez?

Nikaraguan ezohiko aliantza baten lekuko izan gara. Ezohikoa diot berez aliatuak ez diren sektoreak eta mugimenduak elkartu zirelako. Batetik, Eliza katolikoaren apezpikuak daude. Katolizismoa erlijio nagusia da Nikaraguan. Bestetik, abortua legeztatzea eskatzen duten muturreko emakumeen mugimenduak daude. Kontraesan handiak dituzten arren, apezpikuak eta emakume talde horiek elkarrekin daude Ortega presidentea bere postutik kentzeko. Multzo berean daude enpresariak ere. Esan beharra dago azken 11 urteetan enpresa munduak Gobernuarekin harreman ona zuela eta beraien arteko elkarlana oparoa izan dela. Zergatik apurtu zuten enpresariak Gobernuarekin zuten harremana? Ez dakigu. Ikasle talde batzuk ere bat egin zuten aliantza horrekin. Baina esan beharra dago ikasle horiek ez dutela inolaz ere Nikaraguako unibertsitarioen gehiengoa ordezkatzeko. Eta aliantza polidriko horren barruan antolatutako gaizkile taldeak ere badaude. Auzoak oso ondo ezagutzen dituzte eta droga trafikoarekin modu batera edo bestera harreman zuzena dute –saltzaileak, banatzaileak edo kontsumitzaileak direlako–. Eta, noski, Poliziaren kontra daude. Gerra garaian ere ez genuen horrelako bortizkeriarik eta krudelkeriarik ikusi: hildakoak torturatu egin zituzten, gorpuak erre, torturen ostean oraindik bizirik zeudenak galtzada-harriekin kolpeka edo erregaiak erabiliz hil zituzten, hildakoen gorpuak laidoztatzen zituzten manifestatzaileak... Benetako zitalkeriak ikusi ditugu, deabrua-



Argazkiak: Idoia ZABALETA | FOKU

*«Guztion artean
bakea eta harmonia
berreskuratu behar
ditugu. Aurrera egin
behar dugu, hori da
garrantzitsuena.
Gobernuak aliantza
berriak osatuko
ditu, esaterako
enpresari txiki eta
ertainekin»*



ren ekintzak. Arestian esan dudan bezala, Nikaraguan horrelakoak bizi gabeak ginen.

Eliza katolikoak sostengua eman zion Daniel Ortega presidentei izateko. Zerk eragin du haustura hori eta nola baloratzen duzu?

Egia da gobernuaren eta Eliza katolikoaren artean errespetuzko harreman bat zegoela. Gobernuak beti errespetatu ditu herritarren sinismenak, katolikoak edo ebanjelikoak izan. Erakunde bakoitzak dagokion esparruan lan egiten zuen, elkarri trabarik egin gabe. Presidenteak apezpikuekin bilerak egin ohi zituen. Baina Elizaren barruan badaude historikoki Fronte Sandinistaren eta presidentearen kontra

egon diren apezpikuak. 2007. urtean Ortega presidentek kargua zin egin zuenean, Esteliko diozesiko gotzaina, Juan Abelardo Mata, talde armatuekin harremanetan jarri zen. Nekazarien altxamendu bat zela esaten zuen. Gobernuak, aldiz, ganadua lapurtu eta Hondurasera pasatzen zuten gaizkile hutsak zirela frogatu zuen. Managuako gotzain laguntzailea den Silvio Jose Baez ere Ortegaen aurkari amorratua da. Gotzainek Gobernuaren kontrako aliantza osatu zutela aitortu zuen. Gobernuak boteretik kentzeko herri guztiaren batasuna eskatzen zuen. Sektore guztiak –baita feministak eta narkotrafikatzaileak ere– Ortegaen kontra batu behar direla esan zuen.

Zergatik dauden Ortegaen kontra? Zergatik manipulazioaren bidez herritarrek Ortegaen kontra jartzen saiatu diren? Erantzuna sinplea da: ez dute sekula ere ontzat emango edo onartuko pobreen alde lan egiten duen gobernu bat. El Salvadorreko Oscar Arnulfo Romero artzapezpikuaren hitzak baliatzen dituzte beraien diskurtsoetan. Jendearen fedeari, sinismen erlijiosoei eta beharrez baliatzen dira manipulatzeko; adibidez, sare sozialetan zabaltzen diren irudi asko faltsuak dira. Norberak erabaki behar du sare sozialen bitartez zabaltzen diren gauza guztiak sinisten dituen ala ez, edo, aitzitik, horien aurrean jarri behar kritikoa duen. Norberaren ardura da ahalik eta infor-

mazio gehien biltzea, iturri desberdinetatik eta fidagarrietatik, ikuspuntu propio bat edukitzeko. Gobernuak nikaraguarron adiskidetzea nahi du eta helburu hori betetzeko lanean ari da. Familiak, auzoak, komunitateak adiskidetu behar ditugu berriro; izan ere, gu gara ekintza armatuen, gezuraren eta manipulazioaren biktimak. Guztion artean lehen genuen bakea eta harmonia berreskuratu behar ditugu. Garrantzitsuena aurrera egitea da, galdutako lanpostuak berreskuratzea, biolentziaren ondorioz 120.000 inguru galdu genituen-eta. Gobernuak aliantza berriak osatuko ditu orain. Enpresaburu handiek gobernuarekin elkarrizketa eten dute, eta, hortaz, enpresari ertain eta txikiekin egin behar du saiakera gobernuak. Nikaraguako ekonomiaren %75-80 ordezkatzen dute enpresa txiki eta ertainek.

Radio Segoviako zuzendari bezala, nola jorratu dituzue manifestatzaileen protestak eta hildakoak? Zenbat leku dute zure hedabidean gobernuaren kontra daudenak?

Komunikabide bat garen heinean, badugu kode deontologiko bat eta printzipio batzuk; Konstituzioari eta legee irrespetua zor diegu. Herritarren eskubideak defendatzea da kazetari gisa dugun konpromisoa. Gure zonaldean ez zen aparteko biolentziarik egon. Gobernuaren jarraitzaileek eta aurkariak manifestazioak egin zituzten. Bietara joan ginen, horien berri emateko, gezurra eta biolentzia sustatu gabe. Gure ustez egia dena jakinarazi genuen. Hildakorik bazegoen, nor zen azaltzen genuen, erantzulea nor izan zitekeen esan gabe. Egilea identifika-



tzea lortzen bazen, orduan bai esaten genuen. Pentsa, Ocotalen mutil bat hil zuten alkoholak eragindako liskar batean. Handik ordubetera, ustezko errepresioagatik hildakoen zerrendetan zegoen, heriotza Poliziari leporatuta. Gu harrituta gelditu ginen, jakin bagenekien-eta heriotza eztabaida gogor baten ondorioa izan zela. Horra hor lehen aipatu ditudan albiste faltsuen adibide bat. Ez zuen inporta hildakoa nor zen, zerrendan sartzen zuten besterik gabe, zantzurik gabe. Horrela puztu zituzten

«Ikaragarria izan zen istiluen hilabeteetan egon zen manipulazioa. Nazio mailako egunkariak ere egiaztapenik gabe benetakoak ez ziren albisteak zabaldu zituzten»

governuz kanpoko erakunde batzuek ustezko hildakoen zerrenda. Ikaragarria izan zen istiluen hilabeteetan egon zen manipulazioa. Nazio mailako egunkariak ere egiaztapenik gabe benetakoak ez ziren albisteak zabaldu zituzten.

Zer duzu esateko Fronte Sandinistan eta gobernuan izandako zenbait buruzagi historikok egungo arduradunei egindako kritikez?

Sandinismoarentzat oso gogorra izan zen goeko hamarkadan –Fronteak hauteskundeak

galdu eta agintea utzi behar izan zuen–, horietako askok Frontea eta herritarren borroka alde batera utzi zituzten, gauzak momentu zailean zeudelako. Ez genekien zer egingo genuen, zein izango zen gure etorkizuna, lana izango ote genuen. Garai horretan sandinismoaren buruzagi edo ordezkari ziren askok frontea eta borroka utzi zituzten, bizkarra eman zioten Nikaraguako herriari. 1995. urtean gertatu zen haustura handiena. Iraultzan etapa berri bat zabaldu zen. Frontea utzi bitarteko merituak aitortzen zaizkie, baina hortik aurrerakoak ez. Zer-nolako sinesgarritasuna izan dezake bide erdian uzten zaituen norbaitek?

Herriaren ondoan egon zirenek bere garaian egindako ekarpena aitortu beharra dago; eskubideak eta ordura arteko lorpenak babestu zituzten, Mejia Godoy abeslariak, adibidez. Nire zonaldekoa da. Iraultzaren figura adierazgarria izan zen bere abestiekin. Oso kanta ederrak zituen. Bada, orain, dozena bat abesti idatzi ditu jada estatu kolpearen aldekoak goraipatuz, Poliziak manifestatzaileak hil dituela salatuz oraindik ere heriotzon benetako arduradunak nortzuk diren frogatuta ez dagoenean. Heriotzok biolentzia sustatu dutenen ardura dira, ez gobernuarena. Herriarrek ez dituzte Mejia Godoyren kanta berriok abesten; ez dira herrikoiak, ezta ezagunak ere herritarrak ez direlako letra horiekin identifikatzen, ez dituzte beraienak egin. Iraultzari abestu zizkion kantuak bai dira herrikoiak, mugimendu sandinista benetakoa delako; bestea, ustezko oposizioarena, asmakizun hutsa izan da eta epe mugatua izan du.



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Azala

Eztabaida poliedriko interesgarria sortu zen Gasteizen duela hilabete batzuk, Irantzu Lekue artistak eraikin baten fatxadaren egin asmo zuen mural baten kontura. Artikulu baterako luzexko, baina eztabaidak nahasten zituen kale artearen izaera, eraikinen egile-eskubideak, fatxaden estetika eta parte hartze prozesuen legitimitatea, koktel perfektua osatzeraino.

Twitter den tabernazulo horretan ere harrabotsa sortu zuen eztabaidak eta badakizue nolakoa den Twitter, enborreko gaietatik adarrak ateratzen direla, adarretatik adaxkak, eta, halako batean, erabiltzaile batek galdera bat egin zuen, bene-benetan baieztapena zena, ala hobe esanda, ukapen bat: «Etxebizitza partikularrek ez dute egile-eskubiderik. Soilik eraikin 'bereziek' dituzte. Ekoefizientzia legeak betetzeko eraikin baten fatxada estali behar den ala ez, horri buruz ere iritzia eman behar dute arkitektoek ala?». Miresgarria iruditu zitzaidan arkitektoen artean azken bizpahiru urteotan bolo-bolo dabilen gaia di-da ebazteko errazkeria.

XX. mende hasieran, arkitektura modernoak fatxadako egiturazko hormak alboratu zituen, hormigoizko edo altzairuzko zutabeak nahikoa zirelako eraikinari eusteko. Iraultza izan zen hura, eta fatxadak arinagoak bihurtu ziren: hormigoizko itxiturak, leiho handiagoak, adreiluzko errenkadak, elementu aurrefabrikatuak. Teknika aurreratuek ornamentu klasikoaren gainbehera ekarri zuten, elementu berriak sortu ziren eta, haiekin batera, motibo, patroiz eta testura



modernoak, eta detaile sotilagoak. Gerraostean, gainera, dirurik ere ez zen sobera, etxebizitzak eraikitzeke premia izugarria zegoen eta isolamendu egokia ez zen izan lehentasuna. Testuinguru hori egokitu zitzairen orduko arkitektoei, ezin beti asmatu.

Hamarkadek aurrera egin ahala paradigma batzuk aldatzen ari dira, zorionez. Energiarena nabarmen, konstatatu dugularik energia mordoa xahutzen dugula gure etxebizitzak berotzen. Legeak eta dirulaguntzak onartu ditugu eta lanari ekin diogu. Arkitektonikoki bi ondorio nagusi izan ditu horrek: leiho berri hobeak eta fatxada potoloagoak. Geruza bat gehitzen zaio gehienetan eraikinari, bigarren fatxada bat, etxebizitza egoki isolatu baina jatorrizko fatxada estaltzen duena. Geruza zaharra estaltzen duen geruza berria, alfondrak egurrezko parket distiratsua nola.

Nola uztartu jatorrizko fatxadaren konposizioa, materialitatea eta detaile dekoratiboak energia-efizientziaren eskakizunekin? Gatazka potoloa da eta ebazten zaila. Intsinis pinuen gaixotasunak Euskal Herriko paisaia goitik behera aldatu badezake, gure hiri eta herrietako hainbat auzo ere eraldatzen ari gara ekoefizientziaren izenean. Trakets xamar, dena esan beharra dago.

Eraikin berezienetan, legeak salbuespenak aurreikusten ditu eraikinaren balio arkitektonikoa gordetzeke. Garestiak dira salbuespenak. Generikoa dena nola babesten den, hor dago korapilo nagusia nire ustez, alegia, nola babestu XX. mendeak berezkoa duen geruza hori, bikainak izan gabe onak diren eraikin horiek. Garai konplexu baten testigantza materiala gordetzen duen arkitektura maiz gutxietsia. Baiki, iritzia ematea ez da soilik gure eskubidea, gure egin beharra da. •

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Oposizioa egin bainoago, erresistentzia praktikatu

Gogoratzen naiz gogoratzen dena iheskorra dela beti, oroitzapenak ez direlako txanpon egindako kapitala. Ezkutatutako objektuak balira bezala, haiengana iritsi garelako pentsatzen dugunean, beren tokitik ihes egiten dute. Orainean jartzen dugu oroitzen dugun horren tankera zehaztugabea, hortzak estuturik. Baina, oroimenean, materia guztia xahutzen da, desagertzen. Marmolezkoak dirudite oroitzapenek, baino ametsa baino ez dira. Oroitzapenak oso baliagarriak dira beren desafio handiena onartzen dutenean: berragertzea, suspertzea. Sekula ez dira gure baitakoak betirako, ez dituzte gure bizitzak goitik behera bisitatzen. Baina berpizkunde laiko baten ideiak, iragana guztiz, erabat iragan ez den zerbait bezala pentsatzera bultzatzen gaitu. Behin eta berriz. Beste modu askotan aurkeztuz, temati-temati. Sekula ez da berdin berragertzen iragana, baina, bai, hori da: gure iragana. Inoiz amortizatu behar ez dena, beti errentabilizatzen saiatu behar duguna.

Garai ezberdin bakoitzak, baita bizi dugun garai dislokatu honek ere, iraganeko txinparta batek zeharka ez dezan mugak jartzen al ditu? Ez dakit. Horren inguruan malenkoniatsuak kontsultatu beharko genituzke. Iraganaren nostalgia tristan bizi direnak orainaldi absolutuak erakartzen dituelako, bizitza aire egokituarekin baino ez dutelako ulertzen. Mundua, baina, ez da gaur egungoa. Eta igaroden, gaingitu den horretatik ez da deus berpiztuko ez badugu birgaitzen. Iraganetik datorren objektu orok bere bueltan desafiatu egiten gaitu, egoera iheskor batean datorrelako. Jar diezaiogun objektu horri izen bat: adibidez, erresistentzia.

Gobernu orok dauka oposizioa. Baina gobernu guztiek ez dute erresistentzia bat sortzen. Zer da, orduan, orain eta hemen erresistentzia praktikatzea? Herri interesen kontrako gobernu guztiek ez dute hura aktiba-

tzen. Eta horregatik, oraindik ere zalantzarria den alternatiba politikoa defendatzen dutenek, beren bizkar gainean karga hori daramatenek, erresistentzia helburu, argitasun teoriko eta asmamen handikoa den jakinduria militante berria beharko dute. Baita denboraren esperientzia aktibo eta pazientea, denborazkotasuna plurala dela jakitea. Hots, denbora asko daudela, eta denbora bat erabili behar dela pentsatzeko, herria egiteko, militatzeko.

Erresistentziak presentismoa ukatzen du, berehalako ezin eta zoritxarrei egokitzeko presazko denbora motz horri uko egiten dio. Horren orde, aurretik sumatu ezin den denbora misteriozua hartzen du, luzea izateko prest dagoena, nahiz eta, gero, hala izan ez. Gurekin ez dauden memoriak, eta ikuspegi aurreratzai-

Erresistentziak presentismoa ukatzen du, presazko denbora motza. Denboraren esperientzia aktibo eta pazientea hartzen du, denborazkotasuna plurala delako

leaz, egongo direnen memoriak irekitako denbora. Bestalde, erresistentzia garai zailetan hobeki mamitzen dela esaten da. Baina bere barruan sentimendu erresistente bat sortzeko gai denari ez zaio berria egingo garaiotan jakintza erresistente hori sortzea.

Erresistentzia barru-barruko ukatze batean oinarritutako proposamen neurritsua da: gobernuaren erabaki, keinu eta leloen ukazioa. Kontzientziaren plegu eta geruza estalietan aterpea bilatzen duen pentsamendua da. Erresistenteak bere barne-barnean "ez" esateko etika dauka. Baina badaki non esan eta non ez. Egia da, halaber, erresistenteak mundu faktikoaren eboluziora egokitzen ez ohi dakiela, ez dela hipotekatzen, ez dela konbertitu bat. Euskal Herrian oposizioa egin behar da, bai. Baina batez ere erresistentzia praktikatu. •

NEKAZARIEN GARAIPENA

Baserritarren eta landa eremuko langileen eskubideak aitortu ditu NBEk

 **EKONOMIA /** Maider Iantzi Goienetxe

Via Campesinak defendatzen duen guztiarentzako aterki legal bat da Baserritarren eta Landako Langileen Eskubideen Adierazpena: lurra, haziak, berdintasuna, elikadura osasuntsua, bizitza duina, lana izateko eta elkartzeko eskubidea, zirkulazio librea... Orain, gobernuek Nazio Batuek onartu dutena betearaztea falta da.

Baserritarren eta Landa eremuetan lan egiten duten pertsonen Eskubideei buruzko Adierazpena onartu du Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Garai-
pen handia da horren alde borrokatu den Via Campesina nazioarteko antolakundearentzat, eskubide horiek bermatzea baserritarren lana baloratzea eta beren bizia hobetzea delako, baita jendartearen eli-

kadura osasuntsua eta iraunkorra izatea eta ingurunea babestea ere.
Via Campesinako Indonesiako antolakundea (SPI) hasi zen adierazpen hori lortzeko lanean, eta geroztik, Via Campesinako eskualde bakoitzean jendea egon da bultzatzen. Urte pila batean landu da gaia, eta atzean utzi berri dugun 2018a gakoa izan da.
Alazne Intxauspe EHNE Bizkaiko eta Via Campesinako ki-deak dioenez, oraindik hagit

Baserritarren eta landa eremuetan lan egiten duten pertsonen eskubideak NBEren adierazpen batean aitortzea garaipen handia da Via Campesina nazioarteko antolakundearentzat. Irudian, Kubako nekazariak. EHNE BIZKAIA

berria da adierazpena. Instrumentu legal bat da, baina ez da loteslea. «Benetan zein garrantzitsua den azaltzen saiatzen ari gara, baina jakinda oraindik lana dagoela egiteko, kasik errazena onartzea dela. Giza eskubideak ere tresna legal bat dira, eta begira».
Ikusi besterik ez dago bozketak nola joan diren. Europa ia dena abstentziora joan da. «Alemania zegoen ezezkoa emango ote zuen zalantzan eta beldur handia zegoen Europa osoa Alemaniari jarraitzen ari zelako, Portugal kenduta, hasieratik argi eduki eta baiezkua bozkatu duena. Suitzak eta azken unean Serbia, Moldavia eta Luxenburgok baiezkua bozkatu dute. Suedia, Hungaria eta Erresuma Batuak ezezkoa, eta gainontzeko Europa guztiak abstentzioa, blokea eginez eta Alemaniari jarraituz. Abstentzioaren hautua egiteak erakusten du adierazpena praktikan jartzeko zer

borondate edukiko duten», adierazi du Intxauspek.
121 estatuk bozkatu dute baietz, Afrika, Hego Amerika (Guatemalak azkeneko momentuan ezezkoa bozkatu zuen) eta Asiakoak bereziki. Azaroan Nazio Batuen hirugarren salan egin zen bozketa eta han 119 baiezkua, zazpi ezezko eta 49 abstentzio zenbatu ziren. Ondotik, abenduaren 17an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak berak baieztatu zuen adierazpena. «Formalitate bat zen, ez zen espero aldaketa handirik», eta azken emaitzak honakoak izan dira: 121 baiezkua, zortzi ezezko eta 52 abstentzio.
LURRERA JAISTEA, ERRONKA
«Orain markoa badugu: adierazpena. Baina lana dugu egiteko: bakoitzak gure herrira ekarri eta gobernuei betetzeko eskatu behar diegu», azpimarratu du EHNE Bizkaiko ordezkariak. «Dokumentua lurrera



jaistea dugu orain erronka. 28 artikulua jasotzen dira eta horietan gure borroka guztiak daude: lurraren erabilera jasangarria izatea; elikadura osasungarria izatea; pertsonen diskriminazioa eza eta denontzat baldintza egokiak izatea... Guk geuk aldarrikatzen ditugun ideia guztiak adierazpenean daude bilduak. Guretzat oso erraza da, horrenbestez, bandera bezala hartzea, guk borrokatzen ditugun ildo guztien aterkia baita».

TRESNA LEGAL BALIAGARRIA

Garaipen handi bat da baserritar eta landako langileentzat. «Orain arte ez zegoen. Aurreneko artikulua esaten du estatuek betebeharra dutela baserritarren eskubideen alde egiteko. Instrumentu legal batean idatzita dago. Orduan, edozein epaiketatan balio du».

Adibidez, Via Campesinako borroka garrantzitsuetako bat da mundu mailan lurra defendatzen dutenek jasaten duten kriminalizazioari aurre egitea. Prozesu judizialetan sartu beharra dagoenean, oinarri legal bat izatea lagungarria izan da.

Herrialde edo eskualde bakoitzean modu batera izaten ahal da baliagarria adierazpena. Horregatik, bakoitza bere lanketa propioa egiten ari da. «Europa oso garrantzitsua da Genevan egin direlako behin betiko adierazpena ateratzeko negoziazioak, Bolivia gidari zela. Horregatik, asko begiratzen da Europara, Geneva eta Erroma ere oso leku garrantzitsuak direlako halako negoziatioetarako. Beste kontu bat da gero estatuek zer jarrera hartzen duten». Instituzionalki Europa izan da erdigunea, nahiz eta adierazpenaren onarpena eta adierazpena

New Yorken egin, Nazio Batuen Erakundearen egoitzan.

Aipatutako lan instituzional horretan inportantea izan da Via Campesinako baserritarren hainbat ordezkariaren lana. Estatuetakordezkariekin solas egiten eta aldeko botoak lortzen saiatu dira. «Zaila izan dela esaten dute ibili direnek eta eskuratu diren baieztokoein eta abstentzioekin pozik gaude».

Intxauspek agertu duenez, negoziatioetan borroka handia egin da edukirik kanpoan ez uzteko. Estatu batzuek baieztokoa ematekotan edukia gutxitzea eskatzen zuten, baina hasieratik nahiko argi zegoen ezin zela hori egin. Idazteko modua aldatu da, baina edukia hor dago eta horrek ekarri du estatu batzuen ezeztokoa.

Adierazpena berria denez, oraindik ez dago estrategia bat markatua Via Campesinan hurrengo urratsak emateko. «Balorazioa egiten ari gara Skype bidezko bileretan, urtariletik aurrera lanketarekin nola jarraituko dugun ikusteko. Guretzat, orain, garrantzitsua da onartu dela jakinaraztea eta zer esan nahi duen ezagutaraztea jendarteari. Hemendik aurrera pausoak finkatuko ditugu paperean jasotakoa betearazteko».

Testuinguruaz galdetuta, adierazpena onartu den mo-

Bozketaren azken emaitzak honakoak izan dira: 121 baieztokoa (Afrika, Hego Amerika eta Asiakoak bereziki), zortzi ezeztokoa eta 52 abstentzio (Europakoak gehienak)


Estatu batzuek baieztokoa ematekotan edukia gutxitzea eskatzen zuten, baina hasieratik nahiko argi zegoen ezin zela hori egin. Idazteko modua aldatu da, baina edukia hor dago



Barazki ekologikoak lantzen, Getarian. Imanol OTEGI | FOKU



Via Campesinaren konferentzia, 2017ko udan, Derion. Monika DEL VALLE | FOKU



mentu honetan mundu mailan baserritarrek eta landako langileek bizi duten egoera orokorraz, Intxauspek erantzun du, lehenik eta behin, zaila dela ideia orokor bat ematea, baina kapitalismoa aurrera doala bidean harrapatzen duen guztia zapalduz.

«Baina ez nuke irudi negatibo bat eman nahi. Euskal Herria etorrita, datuek beti esaten dute baserritarrak gutxitzen ari direla eta hori errealitate bat da, baina esan nahi nuke ere alternatibak sortzen ari direla eta gero eta jende gehiago kontziente izaten hasten ari dela edo kontziente izatera bueltatzen ari dela zein garrantzitsua den elikadura osasuntsua, baserritarren mundua, ez bakarrik elikadurarako, baizik eta paisaiarako, kulturarako, hainbat gauzatarako. Jendea, kontzienteki, alternatibak bilatzen saiatzen ari da. Herriak husten ari dira gero eta gehiago eta alternatiba berriak sortzen ari dira herri horietan bizi ahal izateko».

Mundu mailan, berdin. Hego Amerikan eta Erdialdeko Amerikan lurrak defendatzen dituztenen kriminalizazioaren arazoa larria da. «Sarri enpresa europarrak dira gobernuekin tratuan lurrak eskuratzen dituztenak negozioetarako. Eta, ondorioz, herri indigenak eta baserritar txikiak lekualdatzera behartuta daude. Beren lurrak ez galdetzeko borroka horretan momentu inportantean daudela uste dut, eta, horretarako, nekazarien eskubideen adierazpen hau oso egokia izango da».

Afrikarrek aipatzen duten arazo nagusia berbera da. «Kanpoko kapitala bertaradoa eta lur askoz jabetzen ari da. Baserritar txikia oso ahula da horren aurrean. Askotan gobernuak ere ez daude bertako baserritarren alde, ezta pertsonen alde ere. Eta gurean herritarren %1 izango gara baserritarrak, baina beste herrialde batzuetan gehiengo dira eta baserritarrez hitz egiten dugunean kasik estatu

Ezkerrean, Beriaingo zerealek uzta. Eskuinean, emakume nekazarien egoera islatzen duen antzerkia, Via Campesinaren nazioarteko konferentzian, Derion. Iñigo URIZ - Monika DEL VALLE / FOKU

guztiz edo gehiengo handi batez hitz egiten dugu».

Adibidez, Errumaniari Europako aletogia deitzen diote. Bertan, baserritar txikiak baldintzak hagitz zailak dira. Industria enpresa handiak eta finantza kapitala indartsu sartu dira eta hori ere arazo bat da. «Lehen bazenekien arazoa Monsanto multinazionala zela; orain, finantza kapitalarekin, ezin diozu aurpegia jarri askotan etsaiari. Diru hori gaur hemengoa da eta bihar hangoa. Askoz ere sutilagoa edo zailagoa da jakiten zeinen aurka borrokatu eta, orduan,

errazago mugitzen dira. Handi bihurtzen zara edo zaila da gure eredueta mantentzea, eta, gure ustez, eredu hau da gizartea justuagoa egingo duena. Bestea kapitalaren esanetan dago».

Munduko elikagaien %70 baserritar txikiek ekoizten dituzte. Eurak dira, beraz, jendartea elikatzen dutenak, tokian tokikoak. «Kapitalak egiten dituen ekoizpenak, soja kasu, bioerregairako izan daitezke, edo burtsan kotizatzen. Gaur gari hektareak eros ditzake eta bihar torlojuak egin; xedea dirua irabaztea da, ez elikagai osasuntsuak ekoiztea».

Gurean, baserritarren batez besteko adina 55 urtekoa da. «Hemendik hamar urterako gure gobernuak ez badira serio pentsatzen hasten zer gizarte mota eta elikadura nahi ditugun, ez badituzte alternatibak martxan jartzen, 65 urtekoa izango da batez bestekoa». Planteamendu integralak egitea proposatzen die Via Campesinak gobernuari.

«Alternatibak sortzen ari dira eta gero eta jende gehiago kontziente izaten hasten ari da edo kontziente izatera bueltatzen ari da zein garrantzitsua den elikadura osasuntsua»

«Hego Amerikan, Erdialdeko Amerikan eta Afrikan kanpoko kapitala jabetzen da lurrez. Baserritar txikia ahula da horren aurrean eta adierazpen hau baliagarria izan daiteke»

GENEVIEVE SAVIGNY

VIA CAMPESINA ERAKUNDEAREN EUROPAKO KOORDINATZAILEA

«Baserritarren eguneroko bizitza benetan hobetzeko ahalmena du adierazpenak»

Genevieve Savigny Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialeko kidea da, baita Via Campesina erakundearen koordinatzaile europarra ere. Horrez gain, Estatu frantseseko etxalde batean egiten du lan, Alpeetan.

Zorionak Nazio Batuek baserritarren eta landa eremuetan lan egiten duten pertsonen eskubideak jasotzen dituen adierazpena onartzea lortzeagatik. Zer-nolako balioa du urrats horrek?

Adierazpena onartu izana arrakasta handi bat da Via Campesina nazioarteko gure antolakundearentzat, urte luzez mugitu baita nekazariak sufritzen dituzten eskubide urraketak aitorzeko eta pertsonon eskubideak bilduko eta argituko dituen nazioarteko tresna bat lortzeko. Hagitz garrantzitsua da landa eremuetako langileak baloratzeko eta bizia errespetatzeko. Hori funtsezkoa da nekazariak onartutako estatusik ez duten herrialdeetan; emakumeentzat, arrantza txikientzat, elikagaiak ekoizteko modu guztietarako. Bestalde, baserritarren antolakundeek gidatutako prozesu bat izan da. Elkarte aliatuekin batera aritu gara. Aunitz erakutsi digute eta aktibista gisa dugun gaitasuna handitzen lagundu. Via Campesinako Indonesiako antolakundea (SPI) eta Henry Saraghi bertako liderra oinarritzakoak izan dira lan erraldoi honi ekiteko.

Via Campesinako koordinatzaile europar bezala, zein paper jokatu duzu negoziaketetan? Nola bizi izan duzu prozesua? Bideak hamazazpi urte iraun ditu. Ez zen erraza izanen.

Zein traba eta laguntza izan dituzue?

Via Campesinako Europako Koordinazioan 2013an hartu genuen konpromisoa auziarekin, ohartu ginenean kontinente zaharreko herrialde guztiak, Suitza izan ezik, Giza Eskubideen Kontseiluan lana hastearen kontra azaldu zirela. Zorionez, tokian tokiko aktibisten lan gogorrari esker, Suitzak bozkatu egin zuen eta horrek posible egin zuen kontseiluko gehiengoak gobernu arteko lehenbiziko lantaldea antolatzea, 2013ko uztailen. Orduan egin nuen nire lehen hitz hartzea Genevan. Ondotik, barne lan bat egin genuen prestatzeko eta gure kide aunitz inplikatzeko, hainbat herrialde europarretan barna. Nazioarte mailan, FIAN eta Cetim bezalako gobernu kanpoko erakundeen laguntza erabakigarria izan da. Nazio mailan, laster etorri dira beste babes batzuk.

Azkenean, 121 estatuk bozkatu dute alde, zortzik aurka eta 52 abstenitu egin dira. Zein estatu aipatuko zenituzke bloke bakoitzetik?

Giza eskubideen sistema ohiz kanpoko oreka bat da munduko estatuen artean. Estatuak arriskuan daude indar politiko eta ekonomikoen garapen desorekatua dela medio. Bozketan, haustura bat sumatu genuen Hegoalde globalaren eta Iparralde industrializatuaren artean. Azken horrek arreta gutxi jartzen die bere nekazariei eta eredu industrial agroexportatzailea aukeratu zuen. Abstenzioaren hautua egin zutenek, orokorrean, bi sistemek irautea nahi dute, nekazaritzakoak eta industriakoak, eta ez dute jarrera argirik hartu nahi.

Aurka bozkatu duten estatuek, zergatik egin dute?

Hagitz dezepzionatuta gaude Europar Batasuneko herrialdeen jarrerarekin. Estatu europarrek printzipiozko kontuak nabarmetzen dituzte, erraten dute ez dutela eskubide zehatzik sortu nahi pertsona kategoria zehatz batzuentzat, baina, era berean, badirudi herrialde aunitz jakitun direla baserritarrek bizi dituzten zailtasunekin. Hala ere, funtsean, nekazaritzako esportazio profesional eta modernizatuaren eredu bat defendatzen dute, eta beren esportazio interesen alde egiten dute. Adibidez, hazien ekoizpen industrialei dagokienez. Ez dute xumeenen eskubideak indartzerik nahi. Ongi etorria ematen diogu Portugalen jarrerari, familia nekazaritzarekin duen konpromisoari fidel izateagatik, baita Luxenburgoren jokabideari ere.

Alpeetako etxalde batean lan egiten duzu. Nola uste duzu gara daitekeela adierazpena bertan? Eta Europa mailan, zein pauso eman beharko lirateke orain?

Lan handia dugu egiteko gure kideei informazioa emateko, maila guztietan: tokian toki, nazio bakoitzean zein Europan, denek uler dezaten testuaren edukia eta aldaketak eragiteko duen ahalmena. Baserritarren eta landa eremuetan lan egiten duten pertsonen eguneroko bizitza benetan hobetu dezaketen aldaketak dira. Lurra eta haziak izateko eskubideaz ari gara. Zuzenean eragiten diguten kontuez. Tokian tokiko eztabaidetan sartzea lortu behar dugu, gazteen instalazioan... Europari dagokionez, gure lanarekin aurrera jarraituko dugu adierazpena herrialde gehiagok babes dezaten, oraindik posible baita. Baina bereziki dokumentuaren edukia, paperean jasotakoa martxan jar dezaten jarraituko dugu lanean, baita bertze herrialdeek martxan jar dezaten baimentzeko ere. Merkataritza politika bortitzak gara ez ditzaten, beti ahulena kolpatzen dituzten akordioak adostu ez ditzaten, hau da, baserritarrek, landa eremuetako langileak, emakumeak.

«Hagitz dezepzionatuta gaude Europar Batasuneko herrialdeen jarrerarekin. Beren esportazio interesen alde egiten dute, adibidez hazien ekoizpen industrialean»


«Lanean jarraituko dugu dokumentua herrialde gehiagok babes dezaten, oraindik posible baita, eta bereziki paperean jasotakoa martxan jar dadin»



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



SINPLASTICO.COM

Plastikorik gabe bizitzeko proposamena Bilbon dago eta sarean du erakustokia

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

Posible al da plastikorik gabe bizitzea? Bai, sikiera, beharrezkoak ez diren plastikoak baztertuta. Hautua egitea iraultza txiki moduko bat da. Kontsumo ohituren aldaketan dago gakoa. Horregatik, neurri handi batean norberaren etxetik hasten den mugimendu handiago bat bilatzen dute Sinplastico.com bezalako ekimenek. Etxekoak iraultza txikiak dira, baina guztion indarra elkartuta plastikozko ozeanoekin bukatzeko moduko uholde erabakigarriak osa daitezke; ikasitakoari buelta ematea ez da ezinezko ariketa bestelako eskaintzak eskura badaude.

Bilbon iraultza handi horretarako tresna txikiak eskaintzen dituen egitasmo bat jarri dute martxan, plastikorik gabe bizitzeko alternatibak eskaintzen dituen. Dagoeneko egiaztatu dute plastikoaren kontsumoa murriztu daitekeela, eta aukera ezberdinak egon badaudela egunerokoan erabiltzen diren plastikozko elementu asko bestelako material jasangarriagoekin ordezkatzeko. «Jende askok uste du oso konplikatu dela, eta demostratu nahi dugu ez dela hain konplikatu eta bidea egiteko ez dela beharrezkoa landa eremu batean bizitzea».

Egitasmoaren bultzatzaileek webgune batean erakusten dituzte tresna horiek, erabilera askotako oinarritzko produktuak guztiak ere: xaboiak, kremak, eskuilak, elikagaiak eta edariak kontserbatzeko poltsak, askotariko ontziak... Produktu bakoitzaren ekoizpenaren inguruko informazio zehatza eta erabilera aholkuak ere ematen dituzte. Salmenta Internet bidez egiten dute, eta jada urte batzuk pilatu dituen esperientzian oinarrituta nabarmentzen dute kontsu-

Sinplastico.com eguneroko etxeko martxan beharrezko ez diren plastikoak baztertzeko proposamenez beteriko katalogoa da. Bilbon dute biltegia eta, oraingoz, Internet bidez saltzen dituzte katalogoan jasotako produktuak. Marion de la Porte eta Javier Barrios daude egitasmoaren buruan. Plastikorik gabeko bizimodua da beren eskaintza.

mo arduratsu eta osasuntsu horrek merkatua badaukala. Bilbon plastikoaren auziarekiko sentsibiltate handia dagoela ere badiote.

Egitasmoak Sinplastico.com izena du, eta, esan bezala, Internet du erakustoki nagusi. «Plas-

Marion de la Porte eta Javier Barrios, Bilbon daukaten biltegian. Biltegi horretatik erantzuten dituzte sarean jasotako eskaerak.
Aritz LOIOLA | FOKU

tikorik gabeko bizitza ahalbidetzen duen denda” izendapena gehitu diote bultzatzaileek markari. Marion de La Porte eta Javier Barrios daude proiektuaren buruan. Esan bezala, momentuz ez dute zuzeneko salmentarik, eta, beraz, Internet bidez be-


te behar da gurditxoa. Biltegia Bilboko Anselma de Salces kalean dute, handik bideratzen dute eskariei erantzuteko banaketa.

SUKALDEA, ZAINTZA PERTSONALA...


Bost atal nagusitan banatu dute eskaintza: sukaldea, zaintza pertsonala, haurrak, etxea eta “gauzak eramatekoak” deitzen dutena. Merezki du atal bakoitzean klik egitea, produktu ezberdinez osatutako katalogoa zabaldu eta produktu bakoitzaren fabrikazioarekin lotutako informazioa eskuratzeko, zein jatorri duen eta zerekin ekoiztuta dagoen kasu.

Lehen planoan aurki daitezkeen gauzen artean kotoi organikoko poltsak daude. Estatuan eta Turkian ekoiztutako kotoiarekin eginak daudela dio infor-





Lerroon gainean, alboan eta azpian, plastikorik gabe bizitzen laguntzeko hainbat tresna; erosketak egiteko oihalezko poltsak, bizarra egiteko egurrezko bizar-xafla eta arropa zintzilikatzeko egurrezko pintzak.
GAUR8



mazioak, erresistentzia areagotzeko hondoan josturarik ez dutela; ekoizpen ziurtagiria ere erakusgai dago, eta arropa garbigailuan sar daitekeela ere jakinarazten da. Beste detaile bat aipatzen da: baskulako etiketa itsasteko prestatuta dago. Era horretara, barazkiak eta fruituak erosteko aproposa da, baina eskuko poltsa modura ere erabil daiteke duen diseinu erakargarriari erreparatuta.

Paketeak biltzeko beste produktu bat dago katalogoan, erleen argizariarekin eta jojoba olio biologikoarekin egindako bilgarrria da, ondoan duen informazioaren arabera. Itxura erakargarrikoa, koloretako estanpatu ezberdinetan eskaintzen da. Produktu guztietan bezalaxe, salneurria eta itxura ikusteko aukera izateaz gain, webguneak deskribapena eskaintzen du, produktuaren detaileak eta komentarioak ere jasoz. Era horretara, erosleak jakingo du zer materialekin egina dagoen (kotoi organikoa, landare-erretxina eta jojoba olio biologikoa), produktu berrerabilgarria, ekologikoa eta konpostagarria dela, zer neurri dituen eta zertarako erabiltzen den. Aztertzen ari garen kasuan, oro har “tuper” izenarekin ezagutzen diren plastikozko ontzi ezagunen ordeztu txikiak garraiatzeko erabil daiteke,

baita elikagaiak gordetzeko edo garraiatzeko ere ohiko bilgarriek dituzten substantzia kaltegarriak ekidinez.

JENDEARI BIDEA HASTEN LAGUNDU

2014an proiektuari forma ematen hasi zirenean, Marion de La Portek eta Javier Barriosek bazuten ezaugarri komun bat: bakoitza bere aldetik «hondakin gutxiagoko bizitza» egiten saiatzen ari ziren. Gauzak horrela, ideia berritzailea bazen ere, nahiko era naturalean etorri zitzaaien burura Sinplastico.com sortzea bi ekintzaileei. Jarduera ekonomiko bat martxan jarri nahi zuten, aukera ezberdinak aztertzen hasi ziren, eta Barriosek Kanadan antzeko egitasmo bat ikusita zeukan.

«Ikusten genuen Bilbon baze-goela eskaintza handia elikagaien arloan, arropan... baina iruditzen zitzaigun bestelako produktuak falta zirela, guk geuk aurkitzen ez genituen bestelako produktuak», gogoratu du De la Portek. Horrekin batera, argi zuten kontsumo mota honekiko sentsibilitatea egon bazegoela, plastikoaren gehiegizko kontsumoaren inguruan kezka bazegoela... eta, hala, horretan ekitea erabaki zuten.

Egun duela bost urte baino «kontzientzia handiagoa» dagoela uste du De la Portek, eta Bil-

bo Handian eskaintza arduratsu eta osasuntsuak bultzatzeko «masa kritiko nahikoa» ikusten du. «Horren froga da nik neuk kontsumo arduratsua egiteko ez dudala inolako arazorik izan Bilbon, nire bizitza erraza da arlo horretan, badago non erosi», komentatu du.

Testuinguru horretan, eskaintza berezitua egiteaz gain argi izan zuten biek oso garrantzitsua zela frogatzea eguneroko kontsumoa beste era batera egin zitekeela eta errealitate hori plazaratzea. De la Portek nabarmendu duenez, erronka «beste era batera kontsumitu daitekeela frogatzea» zen, eta, horretarako, blogaren bidez euren prozesu pertsonalak azaldu dituzte. Izandako harrera ikusita, «jendeari bere bidea egiten lagundu diogula dirudi», onartu dute.

ENPRESATIK BERTATIK HASITA

Blogaren helburua «plastikoa- ren kontsumoan gure inpaktua zelan eta zenbat murriztu» duten azaltzea zen, eta aldaketa «sozializazio arazorik gabe» egin zitekeela erakustea. «Gauza ez da sakelako telefonoa botatzeta, baina beharrezkoa ez den plastikoa erabilera arazorik gabe murriztu daiteke. Hori praktikara eraman dugu gure jardueran, gu ere plastikorik ga-

KALTE UGARIKO PRODUKTU «MERKEEGIA»

Kontsumoaren debate orokorrean ekidinezina da kostuez hitz egitea, eta, sarri, kostu ekonomikoa bestelako kostuen aurretik jartzen da, atzean dagoen errealitateari erreparatu gabe. Sinplastico.com ekimeneko Marion de la Portek argi dauka plastikoaren prezioak ez duela gizarte mailan duen inpaktuaren ondorioa jasaten. Nabarmetzen duenez, osasun arloan eragiten ari den arazoa gero eta larriagoa da, eta, horrez gain,

zaborren bilketaren kudeaketak duen kostua ere ez da plastikoaren prezioan islatzen. «Merkeegia» da eragiten dituen kalteak kontuan hartuta, dioenez. «Kalte horien kostuak salneurrian eraginik ez badu, plastikozko hortzetako eskuilak jarraituko du bi euro kostatzen eta egurrezkoak bost», azpimarratu du. «Kontsumo pertsonalarekin gauzak aldatu daitezke, baina erakundeek zerbait egin behar dute», gaineratu du.



be erosten duen enpresa bat garelako», De la Portek azaldu duenez.

Produktuak biltzeko prozesu osoan plastikoa ahalik eta gehien murriztea lortu dute, eta, erabiltzekotan, «oso noiz-behinka» izatea. «Gure garai-pen txikia izan da salmenta ostean ez ezik, aurreko etapan ere plastikoa kentzea lortzea», komentatu dute.

OHITURAK «DESIKASI»

Egun hiru langile ditu kontratatuta Sinplastico.com ekimenak eta baikorrak dira aurrera begira. Beraien esperientzia pertsonalean oinarrituta, De la Portek aipatu du aldaketa prozesua ez dela gogorra baina «era zehatz batera kontsumitzera ohitu» gaituztela eta ikasitakoa ahazteko prozesu bat egin behar dela. «Inpaktu handiarekin kontsumitzen irakatsi digute eta horren aurrean plastikorik gabe bizitzea errebeldia puntu bat ere bada, ekintza militantea», onartu du. Azaldu duenez, «inposatu diguten kontsumo eredu erabili eta botatzean oinarrituta dago eta engantxatuta gaude». Gaineratu duenez, «plastikoarekin daukagun arazoa oso merkea dela da».

Horregatik, liberazio modutzat ere hartzen du beste bizi-

modu bat egiteko ibilbidea. «Azazkalak pintatu beharra al dut? Edo azazkalak pintatzeko hainbeste kolore behar ditut? Benetan beharrezkoa dut sukaldeko papera?». Horiexek dira De la Portek bere buruari egingandako zenbait galdera. Horren kontura azaldu du bere etxean haur bat eta txakur bat ere bizi direla eta lortu dutela «guztiz beharrezkoak ziruditen gauza batzuk baztertzea». Horregatik saiatzeko gonbidapena egiten du De la Portek, ñabardura bat eginez: «Etxean plastikoa erabiltzen jarraitzen dugu, baina ez alferrikako plastikoa, ez elikagaiekin eta edariekin kontaktuan dagoen plastikoa...».

GIZARTEAREN TZAT DUEN KOSTUA

De la Portek dioenez, erabili eta botatzeko plastikoa ingurumenean eta osasun publikoan eragiten duen kostuaren neurriko

«Online» saltoki bat zabaltzetik haratago, plastikoa erabilera murriztu daitekeela demostratu nahi izan dute. Hala, ia plastikorik erabiltzen ez duen saltoki bat sortu dute

Ordenagailuaren teklatua edota telefonoa plastikozkoak dira eta erabiltzen dituzte. «Gurean ez da dena papera eta egurra, baina ez dugu alferrikako plastikorik erabiltzen»



Plastikoa erabateko presentzia dauka gure egunerokoan. Horren alternatiba izan daitezke oihalezko slip-babeslea, egurrezko termometroa, metalezko basoak edota ogitartekoa eramateko metalezko ontzia.

GAUR8



prezioa balu, «ez zen hain axolagabeki erabiliko». Nabarmendu duenez, osasun mailako gizarie inpaktua azalarazten ari da dagoeneko. «Jarraitzen dugu plastikoa kaltegarria ez balitz jokatzeko eta horretan enpresek eta instituzioek ardura handia dute. Hori bai, herritarrok protagonismo handia izan dezakegu aldaketa prozesuan».

Gaur egun eskaera gehienak Bilbo eta inguruko kontsumitzaileen aldetik jasotzen ditu Sinplastico.com atariak. Baina Katalunian eta Madrilan ere asko saltzen dute.

BERTOKOA BULTZATU

Bezereen profilari dagokionez, azaldu dute 25 eta 55 urte bitartekoak direla gehien-gehienak. Nagusiagoen artean ez da hain ohikoa Internet bidezko erosketak egitea eta hori nabaritzen dute. Hala ere, egiaztatu dute nagusiagoen adin taldean plastikoa «inbasioaren» aurreko produktu asko ezagunak direla


eta asko eskertzen dutela produktuok berriz ere merkatuan bilatu ahal izatea. Izan ere, betiko produktuak izan arren, asko merkatutik guztiz desagertu dira azken urteetan plastikoz egindako antzeko produktuek ordezkatu dituztelako.

Kasu askotan, eskaerari erantzun nahian, produktu jakinen fabrikazioa bultzatu dute Sinplastico.com ekimeneko kideek bertoko ekoizpena indartuz. Egun beste produktu batzuk garatzeko ari dira lanean, batez ere ehunezkoak. Bertako produktu ugari eskaintzen dituzte jada, tartean Berrizko zartaginak, Gasteizen fabrikatzen diren kantineplorak, Bilbon egindako bizarra mozteko xaboa edota Euskal Herri ondotik, Kantabriatik, heldutako argizarizko bilgarriak. «Saiatzen ari gara bertoko ekoizpena bultzatzen eta, testuinguru horretan, Estatu espainolean pisu handia izan duen ehungintza berreskuratzen». Ea lortzen duten.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Ez etsi, beroari eutsi



Negua heldu da askoren hezurretara eta prekaritateak hotzikara forma hartu duelarik, le-rook beroari eusteko teknika batzuk parte-katzeko baliatu nahiko nituzke. Ezer baino lehen, teknikaren atzean den zientziari ere aipamen labur bat: beroa tenperatura ezberdinetan dauden gorputzen artean gertatzen den energia transferentzia da (eta ez gorputz baten propietatea), bi modu ezberdinetan ematen dena, kondukzioz eta irradiazioz. Lehenak molekulen artean, ondoz ondo, ematen den energiaren transmisioari egiten dio erreferentzia (jakina, molekula horiek mugimenduan elkar nahasten badira, azkartu egiten dena; konbekzioa deritzo horri). Bigarrenak, berriz, gorputz beltzaren fenomenoari egiten dio erreferentzia, zeinaren arabera tenperatura jakin batean den gorputzak uhin elektromagnetikoak irradiatzen

dituen ingurunera. Bi fenomenook kontuan izatea garrantzitsua izango da teknikok egokiro ezartze aldera.

Duela bi urte argitaraturiko «Gutxiago zikintzea da garbiena» artikuluan esaten nuenez, lehen egitekoa etxea ondo isolatzea izango da; normalean, leihoetan jarri behar dugu arreta gehien. Sugar txiki batekin igar ditzakegu leihoaren itxituran edo pertsianaren kutxan dauden ihesak eta berauek burletekin, silikona-ekin edo beharrezko material egokiarekin zigilatuko ditugu. Kristal bakarreko leihoen kasuan, burbuiladun plastikoa gaineratik jartzea oso eraginkorra da, kristalaren gainean aire geruza bat sortzen baitugu, airearen bidezko konbekzioa oztopatuz. Zentzu berean, pertsiana eta gortinak ixtea derrigorrezko urratsa izango da; kristalaren alde bietan ahalik eta aire mugimendu txikiena egon dadin. Lurra estaltzea (alfonbrak) eta paretarik

hotzenak egur edo kortxo forratzea ere baloratzen da. Eta noski, kanpotik isolamenduaz gain, garrantzitsua da gela bakoitzaren isolamendua eta bakoitzean denbora noiz emango dugun ondo pentsatzea, bakoitza behar dugunerako berotuz. Ohe ponposoek izan ohi duten errezela ere gauean beroari eusteko pentsatuta dago.

Bigarrenik, bero iturrietan jarri behar dugu arreta. Eguzkia sartzen den etxeetan pertsiana eta gortinak zabaldu beharko ditugu ordu horietan, eta, aukeran, beroa metatu dezaket gorputzak kokatu bertan eguzkiaren bero irradiazioari ahalik eta zuku gehien

ateratzeko. Berogailuei dagokienez, hormaren aurka muntatuak badaude aluminio paperak hormarantz doan irradiazioa atzera gelara islatzen lagunduko digu. Esan beharrik ez dago berogailuak kontsumoaren arabera hautatzea eta behar den denboran soilik piztea funtsezkoa dela. Irudira ekarri dudana, nahiko soluzio ona da gela txiki bat modu merkean berotzeko. Mota askotakoak topa ditzakezue sarean. Nik oheratu aurretik gela epeltzeko erabiltzen dut, ontzi beroa gero ohe barruan sartzeko.

Azkenik, gure gorputza dugu beroari eusteko azken lubakia. Etxean ondo jantzita ibiltzeko egunak dira negukoak, galtzontzilo luzeak erabiltzekoak, jertse goxoak, eta batez ere, oin, esku eta buruak ondo estaltzekoak, bai etxean bai kalean. Ondo jantzi, eta hobeto jan. Koilara plateren unea da negua eta gantz apur bat ere ez zaigu batere gaizki etorriko gure gorputza isolatzeko. On egin deizuela! •

{ koaderno } Iker Barandiaran

iSHOT!u

azko maiatzean Shot! grabazio estudioa erre zen Arrasaten. Zorigaitzeko zirkuitulabur batek sua piztu zuen gauez eta goizean ohartu ziren estudioa kiskaltzen zegoela. Triskantza handia eragin zuen suak: materiala, makinaria eta tresneria asko hondatu zelako; eta sentimentala, mende laurdeneko oroitzapenak eta bizipenak han batuta zeudelako.

Goiz hartan estudioaren gidari Iñaki Bengoa eta bere kideak, lur jota, proiektua bukatutzat emateko puntuan izan ziren. Ezustean, baina, Euskal Herri osotik elkartasun eta laguntza eskaintza mezu ugari jaso zituzten musikaren inguruan diharduten hainbat eta hainbat pertsona eta ekimenetatik. 25 urteotan estudiotik pasa edo elkarlanak gauzatutako ehunka musika talde eta eragileren aldetik zein ordura arte harreman zuzenik izan ez zutenen aldetik.

90eko hamarkadan Bengoak eta Pello Aldabek grabazio estudioa zabaltzea erabaki zutenean ez zuten inola ere halako elkartasun eta atxikimendurik irudikatu. Garai hartan erokeria zen hirietatik kanpo halako estudio bat zabaltzea; hala esan zieten batek baino gehiagok. Hala ere, pausoa ematea erabaki zuten eta urteotan guztietan gaur egun gure eszenan hain ezagunak diren taldeetako asko pasa dira handik. Are gehiago, Shot! berarena da Arrasateko eta inguruko musika harrobia hain aberatsa izatearen “erruaren” zati bat ere; izan ere, abantaila handia izan da eta da herrian edo eskualdean bertan zure sorkuntza grabatu eta plazaratzeko moduko estudioa izatea.

Esan bezala, estudioa erre zenean ugariak izan ziren jasotako elkartasun mezuak, eta herrian hainbat giza-banakok eta eragilek berotasuna eman eta hein batean dirua batzeko ekimena jarri zuten martxan, iSHOT!u izenekoa. “Piztu” hitzaren bertako adiera erabiliz, lanean jarri eta antolatu ziren bi emanaldi oso berezi: bata, irailean, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, non parte hartu zuten Pablo Novoa (Golpes Bajos) eta Keu Agirre-

txeak, Ruper Ordorikak, Petti eta Barrenan semiak, Ines Osinagak, Zea Mayseko Aiora eta Pitik, eta Huntza taldeak. Ezohiko emanaldia, xumea baina aberatsa, soila baina hunkigarria izan zen.

Horren ostean, ikusle rockzalegoari bideratutako ekimen handiagoa antolatzeke pausoak eman ziren. Horretarako, 80ko eta 90eko hamarkadetan hainbeste musika gau ahaztezinen lekuko izandako Arrasateko kiroldegia aukeratu zen. Eta kartela oso indartsua: Itziarren Semeak, La Furia, Glaukoma, Soziedad Alkoholika eta Fermin Muguruza & Des-Kontrol.

Tamalez, Arrasateko Udala baimen tramiteetan atzeratu zen eta, ondorioz, dokumentazio guztia aurkeztu orduko zuzenketak egiteko marjina txikiegia zen, are gehiago Gabon egunak izanik eta segurtasun plana egin zuen enpresak behar den bezala erantzun ez zuelako. Horren aurrean iSHOT!u jaialdiaren antolakuntzak sarreraren dirua itzuli eta bestelako kontzertu anto-

Shot! grabazio estudioa erre zenean, proiektua bukatutzat emateko puntuan izan ziren, baina Euskal Herri osotik elkartasun eta laguntza eskaintza ugari jaso zituzten

laketa egin zuen denbora errekorrean: bi egunetan Arrasateko gaztetxean bost talde horietatik lau banatu zituen, eta Soziedad Alkoholika momentuz alboratu gaztetxeko aforoaren muga dela-eta, ahalik eta jende gutxien kolean uzteko.

Hortaz, azkenean ezin izan da kiroldegian gauzatu eta Shot! estudioaren proiekturako ez da esperotako dirua jaso, jakina, baina zorionez baliabide propioekin egin ahal izan da elkartasun ekimena eta berotasun itzela eman zaie estudioaren bultzatzaileei. Eta ez hori bakarrik, pasa den asteburuan bizi izandakoak bi gau magiko izan dira, elkartasunez, talentuz eta berotasunez bustiak erabat. •

Bideo jokoak, sare sozialak eta Youtube. Nerabeak. Baloreak. Eta indarkeria matxista errepikatu, hedatu eta indartzeko tresnak. Esti Linares ikerlaria institutueta aritu da eztabaida taldeak sortu eta tesia lantzen. Ondorioak edonor arduratzeko modukoak dira. Indarkeria matxistak bere lekua areagotu du, baita sarean ere. Ikergaiak aritu gara berarekin berbetan, lantoki duen Deustuko Unibertsitateko gela batean, gazte artean.

Errealitate matxista digitala aztertu duzu. Zer dago hitz horien atzean?

Batez ere gizartean dagoen matxismoa errepikatu egiten da teknologia berrietan; bideo jokoak, youtuberrak eta sare sozialak. Sexismoa islatzen ari da bertan, batez ere nerabeen artean.

Nerabeen munduan murgildu zara zu.

Ikasleekin eztabaidaguneak sortu ditut, eta teknologia berrietan ematen den sexismoa ikertzeari ekin diogu. Batetik, mutilek eta neskek gaur egun

dituzten konpetentzia teknologikoak aztertu ditugu; informatika ikasteko izena ematen dutenak batez ere mutilak dira, eta horren atzean leudekeen arrazoiak ikertu ditugu. Bestetik, nerabeek dituzten jarrerak aztertu ditugu. Bideo jokoetan zergatik jotzen dute batez ere mutilek? Atzean genero eskemak daudelako.

Iceberg bat irudikatu duzu ikerketan. Teknologien arloan, zer da puntan ikusten dena eta zer dago azpian?

Azpian batez ere jarrerak eta estereotipoak daude. Kode

«Gero eta neska gehiago ikusten ditut sarean matxismoaren kontrako mezuekin. Aldaketa egon badago. Youtuberren artean ere, espazio alternatiboak sortzen ari dira, eta bestelako erresistentzia batzuk daude, zorionez»

batzuk barneratuta ditugu, eta gero estereotipoak ematen dira teknologien alorrean. Normaltzat hartzen dugu errealitate berri hori. Horrek sortzen du puntan dagoena. Zer dago puntan? Zibererasoak. Emakumeak emakume izateagatik jasotzen dituzte zibereraso sexistak edo sexualak. Adibidez, neska batek bera biluzik agertzen den argazki bat bidaltzen dio mutil bati, eta, honek, neskaren baimenik gabe, lagunen artean zabaltzen du. Gero eta gehiago gertatzen ari da hori. Horren ostean, neska horrek irainak, isekak eta komentario sexistak jaso ohi ditu sarearen bitartez. Sare sozialetako argazkien ondorioz eraso matxistak ematen dira ikaste-teen.

Zibererasoetatik eraso sexualetara ere ematen dira urratsak?

Badago eztabaida taldeetan behin eta berriro errepikatzen eta ateratzen den kasu bat. Neska batek bere Instagram kontura argazki intimorak igo ostean, institutuan jaso ohi dituen eraso sexualak dira nabarmenenak. Neska hori putatzat etiketatu ohi da. Zurrumurruak hedatzen dira, eta geldiezina den egoera bat sortzen da.

Gaiok ikertzen hasi zineneko hipotesiak baieztatu egin zaizkizu?

Susmo batzuk guztiz egiaztatu ditut. Matxismoa egon bazegoela pentsatzen nuen, eta erabat baieztatu ahal izan dut hori, youtuberren diskurtsoetan adibidez. Era berean, matxismoa beste kanal batzuetatik ere erreproduzitzen da. Baina ikerketan zehar gai berriak ere topatu ditut. Adibi-



Marisol RAMIREZ | FOKU

«Sare sozialetako argazkien ondorioz eraso matxistak ematen dira ikastetxeetan»

dez LGTBI kolektiboak pairatzen dituen erasoak. Kasu honetan, youtuberra gay, lesbiana edo transexuala denean, homofobia eta transfobia islatzen duten erasoak eman ohi dira. Susmo batzuk banituen ere, horren zehatz ikus-tea ikaragarria izan da. Eta eraso horien normaltasunak harritu egin nau.

Era berean, oso diskurtso eraldatzaile eta alternatiboak badaudela ere konturatu naiz. Gero eta neska gehiago ikusten ditut sarean matxismoaren kontrako mezuekin. Aldaketa egon badago. Youtuberren artean ere, espazio alternatiboak sortzen ari dira, eta bestelako erresistentzia batzuk daude, zorionez.

Zein da nerabeen eta ohiko hedabideen arteko harremana?

Bitxia da, baina beraientzat tradizionalak diren hedabideekin ez dute inolako harremanik. Ez dira existitzen. Une bakoitzean zer ikusi erabakitzeke ahalmena oso garrantzitsua da gazteentzat. Orain youtuber bat edo beste gauza bat ikustea alegia. Telebistan, aldiz, telesail bat edo bestea ikustea ordutegiaren arabera finkatuta dago oraindik ere. Gainera, beraiek bizi duten errealitatea eta telebistatik nagusitzen dena zeinen ezberdinak diren nabarmentzen dute beti. Alegia, nerabeek beste errealitate bat bizi dute, hedabideetan islarik ez duena.

Bideo jokoan kasuan, nagusiki mutilentzat pentsatutakoak dira gehien-gehienak. Nola da posible neskak ere gustura arituko diren bideo jokorik ez egotea gaur egun?

Azterketa sakonagoa izateko, kapitalismoa aztertu beharko genuke. Interes batzuei erantzuten die une honetan merkatuak. Zergatik dira ezagunagoak youtuber batzuk besteak baino? Marka batzuek bultzatzen dituztelako dira ezagunagoak zenbait youtuber. Bideo jokoetan ere aukera zabala da, milaka eta milaka daude. Eta badira espazio berdintsuak eraikitzen dituzten jokoak ere. Baina bideo jokoan artean badago sektore bat kode eta eskema “supermaskulinoetan” eraiki eta garatutakoa; gerra, indarkeria, indartsuena izatea... Joko oso salduak dira, publizitate asko dago beraien atzean.

Orain arrakasta itzela lortu du “Fortnite” jokoak. Nerabeak, batez ere mutilak, horretan ari dira egun. Beraien kulturaren parte bilakatu da, horrekin jokatu behar dute, egunero. Izugarriagoa da “GTA 5” jokoak, dena dauka: arrazakeria, matxismoa, sexismoa, indarkeria... Bertan emakumeek prostituta baino ezin dute izan. Eta hori da joko salduena. Horretan jokatzen direnak dira “guayenak”.

Eta sortu da alternatibarik? Feminismoak badu diskurtzorik edo praktikarik alor honetan?

Gutxi, eta, gainera, nagia ematen du. Ez da ia ezer landu, eta sekulako esparrua dago hor. Eta hor badago paradigma berri bat. Bide jokoetan gero eta gehiago jokatzen, orduan eta zaleago. Eta askok bere profesioa bide horretatik lantzea erabakitzen du. Beraz, alternatibak sortzeko funtsezkoa da neskak ere bideo jokoetan aritzea. Baina jokatzeke, gustuko bideo jokoak egon behar direnez...

Ziberkontrola ere nabarmen igo da gaztetxoan artean, ezta?

Eztabaida taldeetan oso gauza bitxia ateratzen zen. Neskek beraiek aitortzen zuten gehiago kontrolatzen zituztela beraien bikotekideak. Garrantzitsua da ondo azaltzea. Beraien kontrola oso pasiboa zen: mutil lagunaren azken konexio ordua, argazkietan norekin ateratzen zen begiratu, joandako lekuak... Baina ez zuten mutilen bizitza “osoa” kontrolatzen.

Dependentzia emozionaletik kontrolatzen dituzte beraien mutilak. Maitasun erromantikoa dago horren guztiaren atzean. Mutil laguna galtzearen arriskua edo beldurra daukate. Eta, era berean, mutil lagunengandik jasotako kontrolaz aritzen ziren neska batzuk: noiz aterako ziren, norekin, zer egiten zuten, nola janzten ziren... Egiten duten kontrola baino handiagoa jasaten dute neskek.

Neskak gehien eta gusturago ari diren sare soziala Instagram dela esan daiteke, baina badu kontrako efektua ere sare honek.

Batez ere haien gorputzengan du eragina. Sare sozialak erabiltzeko moduak eta moduak daude, gauza onuragarriak eta itzelak egin daitezke, baina sarritan kontrara bihurtzen zaizkigu. Instagram batez ere itxura da. Itxura, itxura eta itxura. Genero estereotipo eta kanonak sortzen ditu. Institutuetan nerabeekin lan eginda konturatu naiz neskek zenbat sufritzen duten indarkeria sinbolikogatik. Une oro beraien gorputzekin txarto sentituz, ez dakite emozioak nola kudeatu. Sortzen diren erreferenteek,

ESTI LINARES

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IKERLARIA

Mundu errealean bezala, mundu

digitalean ere bota ditu sustraiak

matxismoak. Eta erabat horretan eta

horretara bizi diren nerabeak ez dira lokatz

horietatik salbu, Esti Linares ikerlariak

bere tesian jaso duenez.

Patxi Gaztelumendi



Marisol RAMIREZ | FOKU

«Institutueta
nerabeekin lan
eginda konturatu
naiz neskek zenbat
sufritzen duten
indarkeria
sinbolikoagatik.
Une oro beraien
gorputzekin txarto
sentituz, ez dakite
emozioak nola
kudeatu»



jarraitzaile asko eta asko dituzten instagramerrek adierazten duten “postureoa” da jarraitu beharreko kanona. Hortik kanpo bazaude, sufritzea besterik ez dagokizu. Eta normalean beren gorputzak gorrotatzera heltzen dira.

Kosifikazioaz, Interneten emakumeen gorputzak objektu bilakatzeaz aritu zara zure tesian.

Kosifikazioa hori da, emakume baten gorputza objektu bezala tratatzea. Gorputza objektu soilera murriztea. Publizitatean aurretik ikusi izan dugu. Instagramen, berriz, areagotu egin da hori guztia. Eta horrela sentitzen zara. Hori eskatzen dizu gizarteak, eta horrela jokatu ohi dute emakumeek bertan. Txikitatik ikasitako prozesua da; Barbie panpinekin hasita,

gorputzak gizartean duen eragina barneratuta daukagu. “Zure gorputza izango da gauzarik garrantzitsuena”, mezu hori jaso ohi dugu txikitatik. Horregatik gorputza zaindu beharra dago, eta horrelako gorputzik ez baduzu, kanpo geratuko zara.

Feminismoak ahalduntzerako aldarriak egiten dituen honetan, zein litzateke neska gazteen aukera teknologia berrien alorrean?

Jabetze horretan badaude argiak eta itzalak. Badira gero eta gehiago jabetzen direnak, beraien burua feministatzat dutenak, eta horrela jarduten saiatzen dira, baita sarean ere. Matxismoa ikusten duten bakoitzean salatzen dutenak dira. Aktiboak dira. Feminismoa ideologia bezala eta mugimendu bezala gaia lantzen

ari da, eta postura oso positiboak ikusten dira sarean bertan. Neskengan badu eragina feminismoak, baina ez ordea mutilengan. Eta hor erresistentziak sortzen dira.

Mutilek ez dute pribilegiarik galdu nahi, eta horretarako prest egon behar da. Bestetik, gaur egun botatzen diren mezuak aztertu behar dira. Maskulinitate berrien mezua batez ere helduei igortzen zaie, baina maskulinitate berriok gazteentzako balio ote duten duda egiten dut.

Eta zuk ze bideo joko, sare eta erreferentzia aholkatuko zenituzke?

Bideo jokoei dagokionez, nik beti “Just dance” aholkatzen diet, barruan daramagun dantzaria ateratzeko. Horrez gain “Minecraft” ere asko gustatzen zait. Azken finean, ez

dago genero rolik eta espazio mistoak eraiki daitezke. Beste joko batzuetan emakumeak eta gizonezkoak dauden arren, sortzen den espazioa ez da mistoa. Kode maskulinoetan daude eraikita.

Eta, youtuberren artean, batez ere Psico Woman aholkatuko nuke. Oso indartsua da, eta Instagramen ere aritzen da. Jarraitzaile asko ditu eta oso mezu zuzena dauka.

Euskal Herrian topatu duzu erreferentziarik?

Niri ere eskatu didate youtuberra izateko, baina ez dut urrats hori eman oraindik. Soy Una Pringada izango da Euskal Herrian jarraitzaile gehien dituen neska; Barakaldoko Esty Quesada. Kapitalismoari barre egiten dio, bere desadostasunak agertzen ditu sarean. 200.000 jarraitzaile

le baino gehiago ditu gaur egun.

Hezkuntzan gaiok ondo lantzen direla uste duzu?

Urtean bi ordu eskainita ezinezkoa da. Gauza asko aldatu behar dira, lehenik eta behin, ematen diogun garrantzia bera. Hitzaldi bat eskaini eta jarri guztiak lantzea ezinezkoa da. Uste dut egokiena guzti honi buruzko ikasgai bat lantzea izango litzatekeela. Finlandian gaiok ikasturte osoan zehar jorratzen dituzte. Beharra badago, aniztasun sexuala lantzeko, harremanei buruz aritzeko, hezkidetza, arrazakeria, berdintasuna lantzeko. Sustraitik lan egin behar da, eta modu egonkor batean. Teknologia berriek gero eta garrantzia gehiago dute eta arretaz landu behar ko genituzke.

Hau da nire odola

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Hamahiru urterekin (hilabete gutxira hamalau egiteko) ezagutu nuen, topiko guztiekin: beldurragatik negar egin nuen, amak «jada emakume zara» erranez zoriondu ninduen eta aita animoak emanenez agurtu ninduen ikastolara bidean. «Kontuz tantekin» abisatu zidan amak konpresa jartzen ari nintzela eta «zer da hau?» galdetu zidan logelako horman nuen egutegia seinalatuz. «Nire desgrazia egunak», erantzun nion. Apirilaren 19a zen eta hurrengo hilabeteetako 19ak eta ondoko bost egunak markatu nituen (ez naiz oroitzen zein kolorez, baina bel-

tza izan zitekeen). Informazio falta ez zen aitzineko belaunaldiek zutenaren adinakoa, baina ikaragarria zen oraindik. Izeba minez lehertua egoten zen ohean, ezin inori kontatu, amari ere ez. Eskolan, sekulako iskanbila sortu omen zen haurrak nola egiten ziren azaldu behar zutela iragarri zutenean. Gure “sexualitate tailerrak” ez ziren aunitzez zabalagoak: kondoia platano batean jartzera mugatzen ziren gutxi gorabehera, irri lotsati eta gorritasunen artean.

Hilekoa lehenengoz etorri eta hogeiturtera deskubritzen ari naiz emakumeak ziklikoak garela eta odolarekin gau-

den egunak gure negua direla (barnerako uneak), gero udaberria etortzen dela, obulazioarekin batera uda, eta hilekoaren aitzinetik udazkena. Ate pila irekitzen ari zaizkit honekin eta pozarren nago. Era berean, izugarria iruditzen zait orain arte honetan erreparatu ez izana, hain aberasgarria eta interesgarria izanik. Gure odolaren inguruko tabua, misterioa eta izan dugun irudi txarra ez da kasualitatea, Elise Thiebaut idazleak “Esta es mi sangre” liburuan umorez azaltzen duenez. Bada biolentzia handiagorik gure gorputzez ezin solastatzeaz baino? Hilekoa gizonak balute... •

Egin apustu!

**Xabier Mikel
Errekondo**

Orain arte apustuak egiteko ohi-tura batez ere herri kirolei lotuta egon da, baina plazan bertan egon behar zenez oso jende gutxik egiten zuen apustu. *Tragape-rras* makinan jokatzeko gaizki ikusita zegoen eta, hala ere, loteria eta kinie-lekin batera diru erraza lortzeko tentazioa piztu dute.

Egun errealitatea oso bestelakoa da, publizitatean aurpegi ezagunekin inbertitu milioien eta teknologia berrien eraginez gaizki ikusia eta marjinala

zen jokoa “prestigiatu” eta masifikatu egin da, batez ere kirol-apustuak. Diru erraza lortzeko amarruen zelofan berrituak mendekotasun gordina ezkutatzen du ordea.

Urtero milaka jauzten ditu miseria egoerara baina kaltetuenak langile eremuetako gaztetxoak dira, gabeziei eta arazoei ametsezko irtenbidea eman nahian diru errazak eta kirolaren grinak bultzatuta kirol-apustuen pozoian eroriak. 12-22 urte artekoen ia herenak inoiz apusturik egin du eta

hamarretik batek sarri jokatu du azken urtean. Arazoa larria da, baina konponbidea herritarrek eman behar diote Azpeitian, Gasteizen edo Bilbon bezala ala agintariak dituzte hartuko neurri zorrotzak? Eredu hori dute Italia: alkoholarekin eta tabakoarekin bezala, publizitatea eta sponsorizazioa debekatu. Jokoa negatibizatu egin behar da, eta kalteak azpimarratu, horrela ikusaraziz bereziki gazteei.

Apustu makinak droga gogorra dira. Publizitatea “Sobera” dago! •



> Nonahitik, «Orain presoak»



NAIZ+

Gaur, Bilbok eta Baionak euskal presoen giza eskubideen aldeko manifestazioak hartuko dituzte. Manifestazioak 17.00etan abiatuko dira Bilbo-ko Casillatik eta Baionako Errepublika plazatik.



Azken asteotan hamaika ekimen egin dira Euskal Herrian presoen eta euren senideen egoera lau haizetara zabaldu eta manifestazioetara deitzeko. Durangon hitzaldi bat eta giza kate bat antolatu dute. Iurre-

tan, mosaiko herritar bat egin dute, eta Bilbon bizikleta mar-txa. Urnietako eta Andoaingo Sarek “Orain presoak” lemape-an taldeko argazkia atera zuen Adarra mendian. Errenterian «hamaika arrazoi hamaika mi-nutu» ekimena egin dute, eta Bidasoa ibaiaren bi aldeetan, hiru zutabeen martxa. Urru-ñan, etxez etxe banatu dute la-runbateko hitzordua. Oiartzun-go hainbat gaztek bideoa grabatu dute. Espetxetik ere iri-tsi da deialdia. Picassenteko kartzelan preso duten Manex Zubiagak erregimen itxiko mo-dulu batean jarri dituztela dio sare sozialetan, eta manifesta-zioetara joateko deia egin du.

Kolore guztietako atxiki-menduak bildu dituzte bi hi-tzorduetarako. Lehen aldiz, sindikalismo osoaren parte hartzea espero dute Bilboko mobilizazioan, baita Katalu-nian preso dauden politika-rien senideena ere. Baionan ere aniztasuna nagusi izango da. Bertako mobilizazioak 150 hautetsiren babesa jaso du, tartean, 60 auzapezena. 40 apaiz ere batu dira deialdira.



> Maravillas: sareak eta kaleak elkartasunez beteta

Foruzaingoa, Polizia espaino-laren laguntzaz, Iruñeko Ma-ravillas gaztetxean sartu zen asteartean. Gaztetxeak berta-ratzeko deia egin zuen sare so-zialetan. Foruzaingoaren ara-bera, eraikina ikuskatzeko xedea zuen Rozalejo jauregian egindako polizia operazioak. Polizia espainolak inguruko kaleak moztu zituen eta gogor



oldartu zen protestan ziren gazteen aurka. Sare sozialetan Nabarrerria Plazara joateko deia egin zu-ten, eta mezuak zalaparta sor-tu zuen sarean. Hamarnaka salaketa mezu idatzi dira or-dutik. Maravillas gaztetxearen aldeko elkartasunak Euskal Herriko mugak gainditu ditu dagoeneko.



> Liderrari irabazi ondoren, «Txoria txori»

US Garazi eta US Baigorri errugbi taldeak batu zirenean sortu zen Union Sportive Nafarroak Albiren bisita jaso zuen iragan larunbatean. Euskal taldea Hirugarren Mailaren sailkapeneko azkenengo postuan zegoen, eta haren aurkaria lider nabarmena da.

Hala ere, kirolean noizik behin Davidek Goliat menderatzen du, eta hala gertatu zen iragan asteburuan Baigo-

rrin. Etxekoek eskuratu zuten garaipena 18-15 emaitza estua-rekin, eta nola publikoa hala jokalaria ere ia-ia txapelketa bat irabazi izan balute bezala ospatu zuten, Mikel Laboaren “Txoria txori” arnas betean abestuz.

Garaipen horri esker, US Nafarroak atzean utzi du azken postua, nahiz eta oraindik ere maila galtzea saihesteko lan handia duen aurretik.



> Euskal Herrian bizi diren sahararren ongietorria

Patricia Ibañez eta Irati Tobar, hilaren 1ean Marokoko agintariek Mendebaldeko Saharatik egotzi zituzten gazteak, aste bereko ostiralean iritsi ziren Bilbora. Euskal Herrian bizi diren hainbat saharar autobus geltokira joan ziren gazte biei beren esker ona agertu eta beren herriak jasaten duen egoera salatzeke, eta besarkadaz eta musuz hartu zituzten Ibañez eta Tobar.

Ekuador Etxeak sare soziale-tan zabaldu duen bideo batean



Tobarrek dioenez, Saharan jasaten duten giza eskubide urraketa ikus ez dadin kanporatu zituzten.

Irati Tobar eta Patricia Ibañez Dakhlatik Aaiuneraino joan ziren autobusez joan den abenduaren 28an. Hara iritsita, Euskal Herrian bizi den Hassana Aalia saharar errefuxiatuaren familiaren etxean hartu zuten ostatu. Errefuxiatu horrek eman zien hedabideei gazte bien kanporatzearen berri.



> Hondakinen Kudeaketa Planaren albistearen bideoa

Hitzartu parte hartzeko prozesuaren bidez osatutako Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketa Plana Gipuzkoako Foru Aldundian erregistratu zuten joan den astean. Agintariei eman nahi zien GuraSOS elkarteak; haatik, inor ez zen atera hura jasotzera. Jasotako itsuskeria instituzionalaz gain, Aldundiaren egoitza atarian egin-

dako ekitaldia EiTB-n «zentsuratu» izan dela salatu zuten.

Ekitaldian zabaldutako mezua lau haizetara hedatzeko asmoz, bideo batean jaso dute albiste eta sare sozialen bidez, eskuz esku zabaldu nahi du GuraSOS elkarteak. Erronka ere jarri dute mahai gainean, ea 200.0000 lagunek ikusteko aukera duten!





Txerra Bolinaga. Jaizki FONTANEDA | FOKU

infraganti TXERRA BOLINAGA

Duela ia lau hamarraldi RIP taldea sortu zuen zenbait lagunekin, momentua bizitzea helburu bakartzat zuela. Eta momentu gozo eta samin asko bizi izan zituen lagun artean, beti ere rock-punk doinuetan blai. Estilo hori utzi gabe, Konpost taldean jotzen du egun Txerra Bolinaga euskal presoan eta eskubide zibilen aldeko militante sutsuak.

Bere burua «dagoeneko erdi pataterotzat» duen musikari arrasatearra RIP taldearekin lotuko du 80ko eta 90eko hamarkadetako musika mugimendua ezagutu zuen edonork. Garai hartako talderik esanguratsuenetakoaren sortzaileetakoa baita, bere anaia

Jul eta *Portu* eta *Mallabi* lagunekin batera. Ia 40 urte dira «zerbait» egitea pentsatu zutela. Lehenik Doble Cero bezala eta handik gutxira, Mallabiren ordezkari Carlos *Mahoma* taldera sartzean, RIP behin betiko izena hartuta, ezin ukatuzko ekarpena egin zioten garai oparo hartako musika mugimenduari, euren helburu bakarra momentua bizitzea bazen ere.

Hala Bedi irratian egindako elkarrizketa batean, Txerra Bolinagak esan zuen RIP talde bat baino gehiago izan zela, «jarre bat, gauzak egiteko modu bat, lagunak...». Iritzi berekoa da Iker Barandiaran GAUR8ko kolaboratzailea ere. Orrialdeotan idatzi zuen «Jarrera hilezkorra» artikuluan, taldearen jarre nabarmendu zuen hain zuzen, taldekideen «punka ulertzeko modu egiazkoa, apala eta eraikitzailea». Halakoxea da Txerra ere, eta RIP talde garrantzitsu eta esanguratsua izan zela entzunda, baietz dio, «baina hori batez ere orain etorri da, besteak beste liburua egin dutenean». Izan ere, iaz «Larga vida a RIP» lana argitaratu zuten bi gazte kataluniarrek, lagun askoren parte hartzea tarteko, fanzinea izan behar zuena 376 orrialdeko liburukote bihurtuta. «Kontua da guk ez genuela ezagutzero eman nahi», jarraitu du Txerrak, «egiten genuena ez genuen ospetsu izateko egiten, edo ez dakit zer lortzeko. Ia 40 urte pasatu dira, eta guk ez genuen inondik inora pentsatzen hark iraungo zuenik, ezta ni RIPen gainera elkarrizketak egiten ibiliko nintzenik 40 urte geroago. Gure filosofia 'ez dago etorkizunik' zen, *carpe diem!*».

Txerrarentzat, taldearentzat, garrantzitsuena lagun talde handia izatea zen: «Nik ez dut ulertzen RIP nire kideekin eta lagunekin ez bada. Gu kontzertu batera joaten ginenean, ez ginen bakarrik joaten, baizik eta 20 edo 30 lagunekin, kotez, auto-stop eginez...».

Dagoeneko hogeita bat urte joan dira Portu hil zenetik; hamabost, berriz, Mahoma hil zenetik. Lau baino ez Txerraren anaia Julek Bergarako gaztetxeko oholtza gainean azken abestia eskaintzen ari zela. «Oso gogorra izan zen, 'Conde-

nado' abesten ari zen, The Potes taldeak [garaian Julek bertan jotzen zuen] egiten zuen RIPen bertsioa. Lau urte pasatu dira, eta orbaina hor dago, betiko; bizitza guztia eman nuen berarekin, anaiaz gain oso laguna nuen, kolpe handia izan zen. Baina beste alde batetik, orain pentsatzen dut nahi zuena, gustuko zuena egiten, musika egiten hil zela», dio Txerrak nahigabea eta aldi berean harrotasuna agertuz.

Beste zenbait taldetan ere jo izan du Txerra Bolinagak batera. Gaur egun ere bai, Piztu Punk taldean. 2008an Hala Bedi Irratiak eta Gasteizko Gaztetxeak antolatu zuten Piztu Gasteiz egunerako elkartu ziren eta hor segitzen dute.

Rock-punkean bere lekua topatu zuen Txerrak, baina denetarik musika entzuten du, estilo guztiak, musika klasikoa barne. Betidanik bizi izan du musika giroak. Etxean amak pianoa jotzen zuen, arrebek gitarra eta ahotso lantzen zuten, eta aita abesbatza bateko kide zen. Julek eta berak gaztetan tronpa eta tronboia jotzen ikasi zuten, hurrenez hurren. «Hasieran rock-and-rollarekin zaletu ginen. Oso musika zaleak eta rock-and-roll zaleak ginen. Gero punka heldu zen, 80ko hamarkadan, eta hori izan zen detonantea». «Zuk zeuk egin» filosofiak erakarri zituen: jotzeko ez zen maisua izan behar, eta «orain bai» esan zuten.

KONPOST

Azkenaldion proiektu berri batean sartu da Txerra, Konpost taldean, hain zuzen. «Betikoa» utzi gabe, baina. Duela urtebete eta erdi Ruben Sanchez bertso-lariak erabat estilo desberdineko musika egiteko bildu zituen zenbait lagun, denak ere beste talde batzuetan zailduak. Ru-



Txerra Bolinaga, Judimendiko parke batean. Jaizki FONTANEDA | FOKU

ben eta Txerrarekin batera, eta lagun giroan, Jon Aranburu Stockhom S. taldeko gitarra jotzaileak eta Bingen Mendizabal konpositore eta Hertzainak taldeko biolin jotzaile ohiak osatzen dute laukotea. Zaharraz Harro Gasteizko Alde Zaharreko jaietan, Zumaiaiko “Kalea guztiona da” ekimenaren barruan, Hala Bedi tabernan eta beste zenbait lekutan jo dute.

Hasieran, Txerrak zalantzak izan zituen musika eztiago eta motelagoa egiteko gai izango ote zen. Haren ustez, bateriarekin teknikoki mugatuta zegoen, bere kabuz ikasi baitzuen, baina, dioenez, oso aberasgarria suertatu zaio Konposten jotzea eta asko ikasten ari da, beste erritmo batzuk eginez. «Ruben kristoren laguna da eta berarekin

edonora joan daiteke», dio. Pozik dago taldearekin. Normalean bertsioak egin izan ditu jo duen taldeetan, eta «orain abesti propioen garaia iritsi da». Haietako «pare bat presoena gaiaz, bat Almeriako espetxetik iritsitakoa».

MILITANTE

Duela 26 urte iritsi zen Gasteizera eta berehala arreta eman zioten gaztetxeak, Hala Bedi irratia eta oro har Gasteizko giroak. Orduan hasi zen Txerra herri mugimenduan gero eta konpromiso handiagoa hartzen.

Konpost taldean, Txerrak zalantzak izan zituen musika eztiago eta motelagoa egiteko gai izango ote zen, baina, dioenez, oso aberasgarria suertatu zaio eta asko ikasten ari da

Bilbora joatea eta presoena aldeko ekimenetan parte hartzea oso garrantzitsua iruditzen zaio. Jendea nekatzeko arriskua dagoela uste du, baina «kalera ateratzea ezinbestekoa da», dio

Dioenez, RIPEk bazuen harremanik kolektiboekin-eta, hiesaren aurkako jaialdietan parte hartu edo euskal presoena alde-

ko kontzertuak egin zituzten, «baina gure militantzia musika zen», dio. Gasteizen hiesaren aurkako kolektiboa, gay kolektiboa eta poliki-poliki beste asko ezagutzen joan zen, Al-

de Zaharrekoa, euskal presoena aldekoa, Eleak... Hain zuzen, Eleak-Libre dinamikaren aurpegi ezagunenetako bat izan zen. Argi utzi nahi du, ordea,

protagonistak auzipetutako guztiak izan zirela. «Agertzea tokatu zitzaidan, hala proposatu zidaten eta nik onartu egin nuen, besterik gabe. Oso gustura ibili nintzen. Batez ere epaiketaren zain zeudenekin eta haien senideekin egoten nintzen. Senide horiek oso esker onekoak dira. Garai hori nik bihotzaren barne-barnean daukat, harresiak oso intentsuak ziren, emozio handikoak. Oso garai polita izan zen niretzat, oso estresantea ere bai, baina gazte haien eta haien senideen oso oroitzapen ona dut».

Duela hiru aste Arabako hainbat lagun ezagunekin batera gaur Bilbon eta Baiona izango diren manifestazioetara joateko deia egin zuen. «Gai hori ere...», dio kezkatuta. Aspaldi hasi zen presoekiko elkartasun ekimenetan parte hartzen, «eta oraindik ere, izan diren aldaketan ondoren, horrela jarraitzea triste iruditzen zait, kristoren gehiegikeria». Bilbora joatea «oso garrantzitsua» iruditzen zaio, baita beste ekimen askotan parte hartzea ere. Jendea nekatzeko arriskua dagoela uste du, baina argi dauka kalera ateratzea ezinbestekoa dela. «Garaia da, aspaldi zen garaia, eta ezin dugu dinamika hau albo batera utzi».

Arratsaldeko bost eta erdiak dira. Arrasatera doa, amarenera, harekin egon eta afaltzen ematera. Urte asko ditu amak eta gaixorik dago; hori dela-eta, Arrasate eta Gasteiz artean ibiltzen da Txerra, beste konpromiso asko alboratu gabe, baina orain haietan bete-betean sartu gabe. Arrebekin batera, erabateko arreta eskaintzen dio amari. «Hori militantzia bezala daukat», dio.

Barandiaranek arrazoi, benetakoa, umila... Txerra Bolinaga. •

Xabier Izaga Gonzalez



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Urtea birziklatzen

Urte berriari hasiera eman diogun honetan, helburu eta jomuga berriak jartzeko egiten diren askotan saiakera antzuen oso zalea ez naiz; ez da ez dudala sinesten, aldiz, urtarrilak duen hasiera inposatu faltsu hori ez zait beharrezkoa iruditzen, beste edozein unetan egin daitezkeen gauzak direnean batez ere. Baina atsegin dut une batez etenaldia egin, eta pasa den urtera ku-ku txiki bat egitea; eta, gauzak nola hobetu ditzakegun hausnarketa txiki bat egin badaitke, are hobeto.

Urte hasieran dende izaten dituzten beherapenak ez direla sekula amaitzen dirudi; agidanez Londresko *high-street*-ak inoiz izan duten garairik gogorrenak dira, salmentarik baxuenak daramatzate urtarrileko beherapen garaian eta erosketak era tradizionalen egiteko ohitura –denetara joanez– Amazon eta antzeko Internet bidezko lekuen mehatxu eraginkorpean dago. Arropa marka ezagun baten dendara joan nintzen atzo goizean eta paperezko poltsa bat eman zidaten, martxan duten egitasmo baten deskribapena zeukan hizki handiz alde bat guztiz betez. Poltsa berriro ere dendara itzultzeko eskatzen zuen mezuak, baina arropaz beteta, erabiltzen ez ditugun edo armairuan zahartuta ditugun arropaz beteta. Berriro beste norbaitek janzteko, berrerabiltzeko edo birziklatzeko konpromisoa hartzen zuten.

«Zein da zure bizitzako istorioa?», galdetu didate gaur laneko elkarrizketa batean. Urteetan zehar bildutako esperientzien bilduma bat. Batean eta bestean ikasitakoekin hobetuz eta oraindik gehiago hobetzeko ilusioarekin eta motibazioarekin. Elka-

rrizketa berean hiruzpalau aldiz galdetu didate nola aplikatzen ditudan aurreko proiektu batean ikasitakoak oraingo lanpostuan, nola hornitzen diren ideia berriak iraganeko esperientziez. Ideia zaharrak birziklatzeaz aritu gara.

Ettxera itzuli aurretik lantokiko lehenengo solairuko kafe-etxean bazkaldu dudanean, ondorengo hamabi hilabeteetan beteko duten helburua gogorarazi didaten hainbat seinale ikusi ditut. Plastikoen erabilera murrizteko konpromisoa hartu dute; 2020. urterako enpresak ez du plastikorik erabiliko. Hoge mila pertsonatik gorako enpresa batentzat ez da erronka txikia.

Duela urtebete eman nion hasiera London Calling zutabe honi. Orduan Brexitaren desengainuaz ari nintzen. Sustraien indarrak. Eta, Londresen bizi naizelarik, distantzia kudeatzeaz. Ez dakit orduan eman nuen irudi hu-

ra zenbateraino hobetu den. Kaos izugarria dago oraindik ere Brexitaren inguruan; gaur Parlamentuan Theresa Mayri aurpegiratu dioten moduan, bada garaia dagoeneko bi urtez alboran daramagun mamu hori gainera kentzeko, zer gertatuko den argitzeko. Nire hausnarketa pertsonalagoei dagokienez, oraindik ere presente jarraitzen dute, egunero barrenean bueltak, eta, are gehiago, oraindik ere indar gehiago hartu dute azken urtean; orok hobia nola lortu, egoera nola hobetu, ariketa nekaezinean jarraitzen dutan bitartean.

Esperientziak eta ikasitakoak erabiltz, 2019an arrastoa uztea, iaz baino arrasto handiagoa uztea da nire buruari jartzen diodan helburua. Plastikorik gabeko arrastoa. Garrantzitsuak diren horiek gehiago ikusiko eta ulertuko dutena. Urte berri on, irakurle. •



«Nire buruari aurten jartzen diodan helburua plastikorik gabeko arrastoa uztea da».

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



CECILIO. BILBOKO UDAL ARTXIBOA. «LA GACETA DEL NORTE» FUNTSA

ELURTZA BILBON, 50EKO HAMARKADAN

Joan den mendeko 50eko hamarkadan Bilboko historiako elurterik handienetakoak izan ziren. 1954ko otsailaren 2an eta 3an bota zituen elurrek esne, arrain eta baratze produktuen hornidurak huts egitea eragin zuten, sasoiko hedabideek jaso zutenez. Bizilagun bakan batzuek Bilbon zehar eskiz ibiltzeko baliatu zuten elurra. Egun haietako batez besteko tenperatura zero azpiko 5 gradukoa izan zen. Beste euskal hiriburu batzuetan, hala nola Iruñean, zero azpiko 11 graduetara iritsi zen tenperatura, eta, Gasteizen, 10 gradu zero azpitik egin zituen. Euskal Herri osoko tenperatura baxuena Ibañetan egin zuen, 21 gradu zero azpitik. 1955ean eta 1956an, halaber otsailean, elurte handiak izan ziren herrialde guztietan. 1956an, elurte batean, tenperatura zero azpiko 8 graduetara iritsi zen. Artikuluak ilustratzen duen argazkia urte haietako ekaitz batean egina da, Areatzako zubian.

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*



GAUR8 Larunbatero **GARA**rekin

